EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

# GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA GAZTERIAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

2024

| | |
|---|---|
| Izenburua: | «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gazterian» |
| Argitaratzailea: | EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea<br>Manuel Iradier kalea 36. 01005-Vitoria-Gasteiz |
| Egilea: | Red2Red: Cynthia Bartolomé Esteban; Clara Inés Guilló Girard |
| Data: | 2024ko apirila |

# AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA ....................................................................4

2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK ....................................................................5

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ........................................... 5

2.2. DESBERDINTASUNAK BALIABIDEAK ESKURATZEAN .......................... 10

2.3. DESBERDINKERIAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEAN 38

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA ...................................... 40

2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO AGINDUAK ................. 50

3. LEGERIA ....................................................................57

4. DATUEN ITURRIAK ....................................................................58

5. ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK ...............................................64

# 1. TESTUINGURUA

**Gaztaroa** haurtzaroaren eta helduaroaren arteko **giza garapenaren etapa** da. Gizarteek aurrera egin ahala, etapa horien arteko adin-mugak aldatuz joan dira urteetan zehar.

1980ko hamarkada baino lehen, gazteen ibilbideak errazago aurreikusi zitezkeen, eta prestakuntza-etapa amaitzean, ia berehala sartzen ziren lan-merkatuan. Urrats horrek, askotan, gaztaroaren eta helduaroaren arteko aldaketa mugatzeko balio zuen.

Gaur egun, gazteen egoera aldatu egin da, eta **konplexuagoak eta ziurgabetasun handiagokoak dira haien ibilbideak**. Biztanleria-talde horren adin-mugak lausotu egin dira eta, kasu gehienetan, lurralde bakoitzaren gizarte-testuinguruaren araberakoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE), Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) definizioaren arabera, **15 eta 29 urte bitarteko pertsonak hartzen dira gaztetzat**[1]; baina erreferentziazko araudiak[2] adin-tarte zabalagoa ezartzen du, eta 12 eta 30 urte bitarteko pertsonak hartzen ditu gaztetzat. 15 eta 29 urte bitarteko gazteak EAEn bizi diren pertsonen % 14,8 dira, eta horietatik % 56 baino gehiago gizonak dira. Belaunaldien arteko ikuspegiak agerian uzten du gazteek helduek baino **arrisku handiagoa dutela gizarte-bazterkeria jasateko**[3]. Bestalde, genero-ikuspegi intersekzionalaren arabera, **emakume gazteek** gizon gazteek baino **desabantaila handiagoko posizioak izan ohi dituzte**, batez ere baliabideak eskuratzerakoan. Gainera, nabarmendu behar da emakume gazteek zaurgarritasun handiagoko egoerak pairatu ditzaketela, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria mota jakin batzuk.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak gazteen inguruan dituen lehentasunak batez ere **hezkuntzarekin, enpleguarekin, osasunarekin eta etxebizitzarekin** lotuta daude. Hala jasotzen du *2020-2024 Gobernu Programak*, eta horrekin bat datoz *V. Gazte Plana* eta *Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia*. Ildo horietan oinarritzen da, halaber, EAEko gazteriari buruzko lehen legea: *2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena*.

Bai araudiak, bai gazteriaren arloko tresna estrategikoek, helburu hauek dituzte, besteak beste: gazteen arteko **aukera-berdintasunean** aurrera egitea, sexuan oinarritutako bereizkeria mota ororen ezabapena sustatzea, baita **indarkeria matxistak** ere, eta **gazteen emantzipazioa** bultzatzea, etxebizitzan eta enpleguan eragina izanik, besteak beste.

---

[1]Gazteak: 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak, Eustatek ezarritako adin-irizpidearen arabera. Hala ere, dokumentuan zehar, adin-tarteak aldaketak izan ditzake, adierazlearen, iturrien edo datuen eskuragarritasunaren arabera.
[2]2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena Sarbidea
[3]Informazio gehiago jaso nahi izanez gero: «Informe sobre exclusión y desarrollo social en España» (FOESSA Fundazioa, 2019). Sarbidea

# 2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

## 2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA

EAEn, 2.216.302 pertsona bizi dira[4], 1.138.798 emakume (% 51,4) eta 1.077.504 gizon (% 48.6). 15 eta 29 urte bitarteko **biztanleria osoaren % 14,8 da.** Horietatik, % 48,4 emakumeak dira eta % 51,6 gizonak.

**Gazteen artean, gizonezkoak gehiago dira** lurralde historiko guztietan; Bizkaian, ehuneko 4,2ko aldea dago 20 eta 24 urte bitarteko emakume eta gizon gazteen ehunekoaren artean (INE, 2023).

*1. **grafikoa.** EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (2023)*




**Iturria:** Biztanleriaren Etengabeko Estatistika (INE, 2023)

Bai EAE osoan, bai lurralde historiko bakoitzean, biztanleriaren erdia baino gutxiago 45 urtetik beherakoa da, eta horrek **biztanleria zahartzen** ari dela adierazten du. Egoera hori bereziki antzematen da emakumeen artean.

[4]Biztanleriaren Etengabeko Estatistikaren araberako datuak 2023ko urtarrilaren 1ean (INE, 2023).

**2. grafikoa.** *EAEko biztanleak, adinaren eta sexuaren arabera (2023)*




**Iturria:** Biztanleriaren Etengabeko Estatistika (INE, 2023)

**Gazteen indizea**[5], % 17,8koa da EAE osoan. Indize horrek 20 urtetik beherakoen proportzioa zehazten du, biztanleria osoarekiko. Sexuaren eta lurralde historikoaren arabera, gizon gazteen indizea zertxobait handiagoa da emakume gazteena baino, batez ere Bizkaian, aldea 2,2 puntukoa baita (INE, 2023).

***3. grafikoa.*** *Gazteen indizea, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera, EAEn (2023).*




**Iturria:** Biztanleriaren Etengabeko Estatistika (INE, 2023)

[5]Gazteen indizea, tradizionalki, honela zehaztu da: 15 urtetik beherakoen proportzioa biztanleria osoarekiko. Hala ere, gaur egun adin horrek prestakuntza- eta lan-aldiaren muga izateari utzi dio, eta komeni da errealitatera gehiago egokitzen diren beste adin batzuk erabiltzea, hala nola 20 urteak (INE, 2017).

EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitartekoko biztanleen eta 64 urtetik gorakoen arteko ratioak **biztanleriaren zahartzea** eragiten du. EAEn, 64 urtetik gorako 1,6 pertsona daude 15 eta 29 urte bitarteko gazte bakoitzeko. Egoera hori nabarmenagoa da emakumeen artean, haien ratioa **64 urtetik gorako 2 emakume** ingurukoa baita **15 eta 29 urte bitarteko emakume gazte bakoitzeko**.

Bizkaia da ratio handienak dituen lurraldea, gizonen ratioa 1,4koa baita, eta emakumeena 2,0koa. Araba eta Gipuzkoako gizonen ratioa 1,3koa da, eta emakumeena 1,8koa, bi lurraldeetan.

Desgaitasunari dagokionez, 143 mila pertsona inguruk dute desgaitasunen bat EAEn. Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendetasun-egoerei buruzko inkestak adierazten zuenez (Estatistikako Institutu Nazionala, 2020), 45 urtetik beherako eta 5 urtetik gorako 76.400 pertsona inguruk zuten desgaitasuna EAEn. Horietatik, % 31,3 emakumeak ziren (52.500 gizon eta 23.900 emakume). Desgaitasun-taldearen arabera (kontuan hartuta bat baino gehiago egon daitekeela aldi berean), aldeak daude emakumeen eta gizonen artean. Adierazitako adin-taldeari dagokionez (6-44 urte), emakumeek ikusmen-desgaitasun eta entzumen-desgaitasun gehiago dituzte.

***1. taula.*** *Desgaitasuna duten 6 eta 80 urte bitarteko biztanleak, desgaitasun-taldearen arabera, EAEn. Portzentajea sexuaren arabera. (2020)*

| | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|
| **Ikusmena** | 22,9 | 10,5 |
| **Entzumena** | 11,3 | 7,9 |
| **Komunikazioa** | 23,8 | 46,3 |
| **Ikaskuntza, ezagutza aplikatzea eta zereginak gauzatzea** | 15,5 | 39,3 |
| **Mugikortasuna** | 44,5 | 46,1 |
| **Autozainketa** | 29,8 | 39,9 |
| **Etxeko bizitza** | 25,7 | 46,9 |
| **Pertsonen arteko elkarrekintzak eta harremanak** | 39,8 | 52,3 |

**Iturria:** Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendetasun-egoerei buruzko Inkesta (INE, 2020)

Adecco Fundazioak egindako *Jóvenes con discapacidad, motor de futuro* txosteneko datuen arabera, desgaitasuna duten EAEko gazteek, batez beste, 16 hilabete gehiago behar dituzte lana aurkitzeko (24 hilabete eta 8 hilabete, hurrenez hurren). Horrek esan nahi du denbora hirukoitza dela, eta horrek eragina du haien autonomian eta erabateko inklusioan. Oro har, desgaitasuna duten emakumeek gizonek baino eskolatze-tasa, amaitutako ikasketen tasa eta jarduera-tasa txikiagoa dute. Era berean, indarkeria mota guztiek gehiago eragiten diete desgaitasunik gabeko emakumeei baino.

EAEko gazteek ere **etnia- eta arraza-aniztasuna** dute, baina ez dago datu estatistikorik biztanleria xehetasunez bereizteko, ez EAEn, ez Espainian.

EAEko ijito etniako eta Europako ekialdetik etorritako ijitoen populazioari dagokionez, 17.000 pertsona inguru izan daitezkeela kalkulatzen da. *Ijito Herriarekiko 2022-2026 Euskal Estrategia*k adierazten duenez, biztanleria batez ere gaztea da, «hazten dago, jaiotza-tasa altua dauka, erdiak baino gehiago emakumeak dira, eta bizi-itxaropena gorantz doa, nahiz eta oraindik ere EAEko gizartearen batezbestekoarena baino askoz baxuagoa izan» (2022:10).

EAEko ijito-biztanleriarekiko erronkek arlo hauek hartzen dituzte oinarritzat: gizartean parte hartzea sustatzea, ikasten jarraitzea eta eskola-arrakasta, neskato eta neska gazte ijitoen eskubideak sustatzea eta genero-indarkeriatik babestea, bai eta ijito-taldeen aurkakotasuna zeharka desagerraraztea ere.

Migrazioek EAEn bizi den biztanleriaren **jatorri-aniztasuna** aberasten laguntzen dute, nazionalitatea edo jatorrizko herrialdea edozein dela ere.

EAEko *Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerei* buruzko urteko barometroaren emaitzen arabera (Ikuspegi, 2023), immigrazioarekiko jarrera tolerantea dugu gehienbat, aurreko urtetakoaren antzekoa. Inflazioa, langabezia eta prezioen igoera dira EAEko biztanleek hautemandako arazo nagusiak, eta immigrazioa ez da arazo handitzat hartzen. Gainera, lan-merkatuari egiten dioten ekarpen positiboa aitortzen zaie etorkinei. 2023an, EAEn bizi ziren biztanleen % 9,3 atzerritarrak ziren (EUSTAT, 2023). Biztanleria hori Espainiako nazionalitatea duena baino gazteagoa da. Batez beste 33,5 urte dituzte, Espainiako nazionalitatea duten pertsonek, aldiz, 46,8 urte (EUSTAT, 2023).

15 eta 29 urte bitarteko gazte atzerritarrek pisu handiagoa dute gazteen artean: adin-talde horretan EAEn bizi diren gazte guztien % 14 dira. Horrek esan nahi du, zenbakietan esanda, 2022an atzerritar jatorriko 44.137 gazte zeudela (% 47,5 emakumeak), gazteak, guztira, 313.104 izanik.

EAE osoan, atzerritar gazteen sexuaren araberako banaketa **asimetrikoa da,** eta adin-tarte horretan **gizonak gehiago dira**. Banaketa horri eutsi egiten zaio lurralde historikoetan, baina zertxobait aldatzen da adin-azpitaldeen arabera aztertuz gero.

**2. taula.** *Gazte atzerritarren ehunekoa sexu bakoitzean, EAEn (2022)*

| | EAE | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| **15-17 urte** | 45,5 | 54,5 | 43,5 | 56,5 | 44,1 | 55,9 | 48,4 | 51,6 |
| **18-23 urte** | 44,2 | 55,8 | 43,3 | 56,7 | 43,7 | 56,3 | 45,6 | 54,4 |
| **24-29 urte** | 50,0 | 50,0 | 47,4 | 52,6 | 50,3 | 49,7 | 50,7 | 49,3 |

**Iturria:** Erroldа Jarraituaren Estatistika (INE, 2022).

Alegia, **migrazioak** funtsezkoak dira dinamika demografikoan, eta eragina dute lurraldeetako biztanleriaren birbanaketan. Horren harira, garrantzitsua da EAEko gazteen inguruko emigrazioak eta immigrazioak aztertzea.

2022an, EAEn bizi ziren **15 eta 29 urte bitarteko 4.378 pertsonak atzerrira emigratu** zuten. Horietatik 2.463 gizonak ziren (% 56,3) eta 1.915, berriz, emakumeak (% 43,7). Emigrazioen erdiak baino gehiagok Bizkaia izan zuten abiapuntu (2.247 gazte, % 55,2 gizon eta % 44,8 emakume). Sexuaren arabera, gizon gazte emigratzaileen ehunekoa handiagoa da emakumeen ehunekoa baino, lurralde historiko guztietan. Araban dago alderik handiena emakume eta gizon gazte emigratzaileen artean, ehuneko 22koa.

Ez da aurkitu EAEko gazteek emigratzeko dituzten motibazioei buruzko azterlan eguneraturik. Hala ere, pertsonek hiru arrazoirengatik uzten dute herrialde bat: faktore soziopolitikoak —hala nola gatazka armatuak edo jazarpen etnikoak, arrazakoak, erlijiosoak, etab.—; faktore ekonomikoak —krisi ekonomikoa, adibidez—; edo ingurumen-faktoreak —hondamendi naturalak, adibidez— (Europako Parlamentua, 2024).

Gaur egungo testuinguruan motibazio soziopolitikoak eta ingurumenekoak baztertzen direnez, hipotesi nagusia da EAEko gazteek lan-aukera hobeen bila migratzen dutela atzerrira.

Urte berean, **EAEk atzerritik etorritako 13.807 gazte jaso zituen**, atzerrira joandako gazteak halako hiru baino gehiago. % 52,5 gizonak ziren, eta % 47,5 emakumeak. Bizkaia da atzerritik etorritako pertsona gehien jaso dituen lurraldea: 3.814 gizon eta 3.394 emakume. Eta lurralde historiko guztietan, gizon etorkin gazteen kopurua adin bereko emakumeena baino handiagoa izan zen.

2023ko urtarrilaren 1ean, EAEn bizi diren biztanleen % 9,3 atzerritarra zen. Hego Amerikatik dator % 30 inguru, % 17,4 Magrebeko herrialdeetatik eta % 15,4 Amerikako gainerako herrialdeetatik, eta horiek dira jatorri nagusiak (Eustat, 2023).

Amerikatik eta Ekialdeko Europatik etorritako pertsonen artean, emakume gehiago dago gizonak baino, eta beste leku batzuetatik etorritako biztanleen artean, berriz, emakume gutxiago dago, batez ere afrikar jatorriko pertsonen artean (Eustat, 2023).

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsona gehienak **migratzaile ekonomikoak** dira. Hau da, garapen faltagatik edo jatorriko herrialdeko krisi ekonomikoagatik, aukera hobeen bila migratzen duten pertsonak dira. Horregatik, EAEko migrazio-fluxuen gorabeherek lotura zuzena dute egoera ekonomikoarekin (Rincón Moreno, 2022[6]).

[6] Rincón Moreno, I., 2022. EAEko biztanleria areagotuz joan da urtez urte, migrazioari esker

## 2.2. DESBERDINTASUNAK BALIABIDEAK ESKURATZEAN

**Genero-rol eta -estereotipo tradizionalek** emakumeen eta gizonen trebetasunei, interesei eta helburuei buruzko aurreiritziak indartzen eta betikotzen dituzte. Beste faktore batzuen artean, genero-ideia estereotipatuek garrantzi handia dute gazteek ikasketak edo lanbide-orientazioa itxuraz askatasunez hautatzeko garaian.

Enplegu-aukera handienak eta lan-baldintza hobeak dituzten eremuak, hala nola STEM lanbideak, historikoki maskulinizatuta egon dira, eta, tamalez, joera horrek bere horretan jarraitzen du. Hezkuntzan edo osasunean, tradizioz emakumeei zaintzan esleitutako ugaltze-rolei lotutako eremuak direnez, emakume gehiago daude.

### Hezkuntza eta prestakuntza

EAEn **Lanbide Heziketako ikasketetan** (LH) emakumeen presentzia gizonena baino nabarmen txikiagoa da. Emakumezko ikasleen ehunekoak gora egiten badu ere mailak gora egin ahala, emakumeak % 36,4 baino ez dira goi-mailako LHko ikasleen artean.

LHn, heziketa-zikloen arabera matrikulatutako ikasleek banaketa desberdina dute sexuaren arabera. LHko hiru mailetan —oinarrizkoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa—, **emakumeak dira heziketa-ziklo hauetako ikaslerik gehienak: irudi pertsonala** (% 83,2 Oinarrizko Lanbide Heziketan, % 88,8 Erdi Mailako Lanbide Heziketan eta % 92 Goi Mailako LHn), **ehungintza, jantzigintza eta larrugintza** (% 67,6, % 87,2 eta % 88,5, hurrenez hurren) eta **gizarte-zerbitzuak eta komunitatearentzako zerbitzuak** (% 65,8, % 79,5 eta % 78,0, hurrenez hurren).

Hala ere, **STEM eremuarekin lotura handiena duten heziketa-zikloetan, emakumeek ordezkaritza txikiagoa dute** hala nola arlo hauetan: “elektrizitatea eta elektronika”, “fabrikazio mekanikoa”, “instalazioa eta mantentze-lanak” edo “ibilgailuen garraioa eta mantentze-lanak”.

Are gehiago, kasu batzuetan ez dago emakumerik, adibidez, Oinarrizko LHko “Eraikuntza eta Elektronika” heziketa-zikloan.

**3. *taula.*** *Emakumeen ehunekoa EAEn, LHn matrikulatutako ikasle guztien gainean, prestakuntza-zikloaren arabera (2021-2022 ikasturtea)*

| | Oinarrizko LH | Erdi-mailako LH | Goi-mailako LH |
|---|---|---|---|
| Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak | -- | % 17,7 | % 23,7 |
| Administrazioa eta kudeaketa | % 56,1 | % 52,3 | % 61,5 |
| Nekazaritza | % 15,5 | % 22,1 | % 26,5 |
| Arte grafikoak | % 53,7 | % 43,9 | % 58,8 |
| Merkataritza eta marketina | % 54,0 | % 50,6 | % 44,0 |
| Eraikuntza eta obra zibila | % 0,0 | % 23,6 | % 36,1 |
| Elektrizitatea eta elektronika | % 3,1 | % 4,4 | % 7,2 |
| Energia eta ura | -- | -- | % 5,9 |
| Fabrikazio mekanikoa | % 2,3 | % 4,8 | % 11,1 |
| Ostalaritza eta turismoa | % 35,9 | % 37,5 | % 49,6 |
| Irudi pertsonala | % 83,2 | % 88,8 | % 92,0 |

| | Oinarrizko LH | Erdi-mailako LH | Goi-mailako LH |
|---|---|---|---|
| **Irudia eta soinua** | -- | % 20,4 | % 30,5 |
| **Elikagaien industriak** | % 4,0 | % 60,0 | % 48,1 |
| **Informatika eta komunikazioak** | % 13,2 | % 7,2 | % 15,3 |
| **Instalazioa eta mantentze-lanak** | % 1,3 | % 3,5 | % 5,0 |
| **Zurgintza, altzarigintza eta kortxogintza** | % 6,8 | % 10,6 | % 21,3 |
| **Itsasoa eta arrantza** | -- | % 4,0 | % 6,4 |
| **Kimika** | -- | % 49,1 | % 62,2 |
| **Osasungintza** | -- | % 75,4 | % 77,0 |
| **Segurtasuna eta ingurumena** | -- | -- | % 37,9 |
| **Zerbitzu soziokulturalak eta komunitate-zerbitzuak** | % 65,8 | % 79,5 | % 78,0 |
| **Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza** | % 67,6 | % 87,2 | % 88,5 |
| **Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak** | % 2,9 | % 5,1 | % 4,9 |
| **Heziketa-zikloak, guztira** | % 27,0 | % 34,4 | % 36,4 |

**Iturria:** Hezkuntzari eta lanbide-heziketari buruzko estatistikak (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023)

Unibertsitate-ikasketei dagokienez, EAEn ez dago alde handirik **gizonezko eta emakumezko unibertsitarioen** artean, emakumezko unibertsitarioen kopurua pixka bat handiagoa da (matrikulak), bereziki graduko ikasketetan. Hala ere, LHko ikasketetan gertatzen den bezala, ikasleak ikasketa-eremuen arabera aztertzean, banaketa desberdina da sexuaren arabera.

Emakume gehiago dago honako adar hauetan: Hezkuntza, Arteak eta Humanitateak, Gizarte Zientziak, Kazetaritza eta Dokumentazioa, eta Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak. Aldiz, ordezkaritza oso txikia dute Ingeniaritza, Industria eta Eraikuntza, eta Informatika adarretako ikasleen artean, bai gradu eta masterreko ikasketetan, bai doktoregoetan.

Zientziak eta Zerbitzuak eremu orokorretan, oro har, itxurazko oreka dago emakumezko eta gizonezko ikasleen artean, baina sakonduz gero, desberdintasunak ikusten dira:

- Emakume gehiago dago "bizitzaren zientzien" eremuan, baina ordezkaritza txikia dute "zientzia fisiko, kimiko eta geologikoen" eremuko ikasleen artean. Bereziki nabarmentzekoa da matematiken eremuko emakumezko doktoregaien ehuneko txikia (% 20,4).
- Zerbitzuen esparruari dagokionez, graduko eta masterreko ikasketetan ikasleen % 27 baino gutxiago dira emakumeak, eta doktoregaiak % 16,1 bakarrik dira kirolen alorreko ikasketetan. Turismoa eta ostalaritzaren eremuan, emakume gehiago dago gizon baino, batez ere doktoregoko ikasketetan.

**4. taula.** *Graduan, masterrean eta doktoretzan matrikulatutako ikasleen artean dauden emakumeen ehunekoa, ikasketa-eremuaren arabera, EAEn (2022-2023 ikasturtea)*

| | Gradua | Masterra | Doktoregoa |
|---|---|---|---|
| **Hezkuntza** | % 68,7 | % 63,3 | % 59,7 |
| **Arteak eta humanitateak** | % 67,3 | % 62,7 | % 57,3 |
| **Gizarte-zientziak, kazetaritza eta dokumentazioa** | % 64,5 | % 67,4 | % 60,6 |
| **Negozioak, administrazioa eta zuzenbidea** | % 53,0 | % 56,0 | % 43,7 |
| **Zientziak** | % 51,5 | % 50,0 | % 48,6 |
| - Bizitzaren zientziak | % 62,1 | % 57,5 | % 62,6 |
| - Zientzia fisikoak, kimikoak, geologikoak | % 44,4 | % 40,5 | % 43,0 |
| - Matematika eta Estatistika | % 50,8 | % 48,1 | % 20,4 |
| **Informatika** | % 17,5 | % 31,9 | % 32,3 |
| **Ingeniaritza, industria eta eraikuntza** | % 30,6 | % 29,1 | % 31,5 |
| **Osasuna eta gizarte-zerbitzuak** | % 75,5 | % 77,6 | % 64,3 |
| **Zerbitzuak** | % 36,7 | % 57,6 | % 34,6 |
| - Kirolak | % 26,7 | % 21,4 | % 16,1 |
| - Turismoa eta ostalaritza | % 50,9 | % 59,0 | % 60,0 |
| **Guztira** | % 54,6 | % 51,3 | % 50,9 |

**Iturria:** Unibertsitate-estatistikak (Unibertsitateetako Ministerioa, 2023)

Bestalde, egresatutako pertsonen datuei dagokienez, EAEn **goi-mailako ikasketak** (gradua, masterra edo doktoregoa) **amaitzen dituzten ikasleen** artean, emakumeen ehunekoa nabarmen handiagoa da gizonena baino. Bereziki, 25 urtetik beherako ikasleen artean, adin-tarte horretan graduko ikasketak amaitu dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino ehuneko 19,4 handiagoa baita.

Ezagutza-adarren araberako analisiaren bidez ikusten da **graduetan edo masterrean titulatutako emakumeen ehuneko handiena hezkuntza-ikasketetan dagoela** (graduko tituludun guztien % 23,2, masterreko tituludun guztien % 22); gizonen kasuan, berriz, ingeniaritza, industria eta eraikuntzako tituludunak nabarmentzen dira (% 27,7 eta % 38,0, hurrenez hurren).

**5. taula.** *Graduan eta masterrean, egresatutako ikasleak, sexuaren eta ikasketa-eremuaren arabera, EAEn (2021-2022 ikasturtea).*

| | Gradua | | Masterra | |
|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| **Hezkuntza** | % 23,2 | % 12,9 | % 22,0 | % 14,0 |
| **Arteak eta humanitateak** | % 11,0 | % 7,0 | % 5,8 | % 4,0 |
| **Gizarte-zientziak, kazetaritza eta dokumentazioa** | % 11,5 | % 6,6 | % 10,6 | % 7,6 |
| **Negozioak, administrazioa eta zuzenbidea** | % 21,2 | % 21,1 | % 20,1 | % 16,2 |
| **Zientziak** | % 5,0 | % 7,2 | % 8,9 | % 9,0 |
| **Informatika** | % 0,8 | % 6,2 | % 1,6 | % 3,7 |
| **Ingeniaritza, industria eta eraikuntza** | % 7,9 | % 27,7 | % 16,0 | % 38,0 |
| **Osasuna eta gizarte-zerbitzuak** | % 16,7 | % 6,2 | % 12,5 | % 4,4 |
| **Zerbitzuak** | % 2,7 | % 5,0 | % 2,4 | % 3,2 |
| **Guztira** | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 |

**Iturria:** Unibertsitate-estatistikak (Unibertsitateetako Ministerioa, 2023)

Doktorego-tesiei dagokienez, zientzietan dago doktoregoa lortu duten ikasleen ehuneko handiena, bai emakumeen artean, bai gizonen artean; baina emakumeak ehuneko 3 gutxiago dira. Eremu horren atzetik, emakume gehiago doktoratzen dira osasunaren eta gizarte-zerbitzuen eremuan (doktoregoa lortu duten emakumeen % 20,0), eta gizon gehiago ingeniaritzan, industrian eta eraikuntzan (% 22,7).

- Hezkuntza-prestakuntza goiz uztea

EAEn, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean **hezkuntza goiz uzten dutenen tasa**[7] % 5,6koa da 2022an (Gazteen Euskal Behatokia, 2024a); Espainiako baxuena da.

Sexuaren arabera, **goiz uzten dutenen tasa nabarmen handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino.** 2018-2020 aldia aztertuta, ikusten da 2018an gizonen tasa emakumeena ia halako bi zela. 2021. urtea da aldi honetako urte bakarra, non emakumeen tasa pixka bat handiagoa den (ehuneko 0,2). 2022an, berriz, aldea ehuneko 2,8koa da, eta berriz ere tasa handiagoa da gizonen artean.

- Euskararen ezagutza

Euskara ulertzen eta hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen eta gizonen ehunekoa nabarmen handiagoa da EAEko biztanleria osoan erregistratutako ehunekoak baino (Eustat, 2018), 2016ko datuen arabera[8].

Sexuaren arabera, gazteen artean **euskararen ezagutza-tasa** antzekoak dira, pixka bat txikiagoak emakumeen artean, Araban izan ezik.

***6. taula.*** *Euskara dakiten EAEko biztanleak, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (2016)*

| | | Populazioa, guztira | | 15-29 urte | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Emaku-meak | Gizo-nak | Emaku-meak | Gizo-nak |
| **EAE** | **Euskaraz hitz egin eta ulertzen dute**[9] | % 60,1 | % 61,2 | % 81,5 | % 82,0 |
| | **Ez dute euskaraz hitz egiten eta ez dute ulertzen**[10] | % 39,9 | % 38,8 | % 18,5 | % 18,0 |
| **Araba** | **Euskaraz hitz egiten eta ulertzen dute** | % 48,4 | % 48,0 | % 74,9 | % 73,9 |
| | **Ez dute euskaraz hitz egiten eta ez dute ulertzen** | % 51,6 | % 52,0 | % 25,1 | % 26,1 |
| **Bizkaia** | **Euskaraz hitz egiten eta ulertzen dute** | % 55,6 | % 57,1 | % 80,7 | % 81,3 |
| | **Ez dute euskaraz hitz egiten eta ez dute ulertzen** | % 44,4 | % 42,9 | % 19,3 | % 18,7 |
| **Gipuzkoa** | **Euskaraz hitz egiten eta ulertzen dute** | % 72,7 | % 73,8 | % 85,8 | % 86,7 |
| | **Ez dute euskaraz hitz egiten eta ez dute ulertzen** | % 27,3 | % 26,2 | % 14,2 | % 13,3 |

**Iturria:** Biztanleriaren eta etxebizitzen estatistika (Eustat, 2018)

[7]Gehienez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edo baliokidea egin eta maila handiagoko titulaziorik lortu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
[8]Biztanleriaren eta etxebizitzen estatistikan eskuragarri dauden azken datuen arabera (Eustat, 2018).
[9] «Euskalduna» eta «ia euskalduna» kategoriak taldekatzea
[10] «Erdalduna» kategoria

2022an, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 79,3k ondo hitz egiten du euskaraz. Emakumeen euskara-ezagutzaren tasa (% 81,8) ia ehuneko 5 puntu handiagoa da gizonena baino (% 77,0) (Gazteen Euskal Behatokia, 2024).

- Beste hizkuntza batzuk jakitea

Beste hizkuntza batzuen ezagutzari dagokionez, **EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 69,5ek ondo hitz egiten du ingelesez.** Hizkuntza hori ongi hitz egiten duten emakumeen ehunekoa (% 70,1) gizonena baino zertxobait handiagoa da (% 68,9) —6. taula—.

EAEko emakume gazteen **hirueletasun-tasa** % 60,0koa da. Hau da, gizonen tasa baino ehuneko 4,6 handiagoa.

*7. **taula**. Ingelesez ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa eta hirueletasun-tasa gazteen artean, sexuaren arabera, EAEn (2022)*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Ondo hitz egiten du ingelesez** | % 69,5 | % 70,1 | % 68,9 |
| **Hirueletasun-tasa** | % 57,6 | % 60,0 | % 55,4 |

**Iturria:** Hezkuntza-adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024a)

## Enplegua

EAEn, 1 053 000 **pertsona dira ez-aktiboak**[11]. Gizon ez-aktiboen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da, adina edozein dela ere. Bereziki nabarmentzekoa da 16 eta 19 urte bitarteko aldia, ia ehuneko 13,5eko aldea baitago gizon ez-aktiboen (% 56,7) eta emakume ez-aktiboen(% 43,3) artean.

Biztanleria aktiboari dagokionez, **langabeen artean** alde handiagoak daude adinaren arabera. 25 urtetik behera, emakume langabeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da; aldiz, 24 urtetik gora, alderantziz gertatzen da, eta emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da.

**Landun biztanleriaren** barruan, emakume baino gizon gehiago dago, adina edozein dela ere. 20 eta 24 urte bitarteko adin-taldean, alderik handiena dago sexuaren arabera (ehuneko 6,8).

[11] *Inaktibitate* edo *aktibitate* terminoen bidez, pertsona bakoitza jarduera ekonomikoarekin duen harremanaren arabera sailkatzen da. LNEren irizpideen arabera, 16 urte edo gehiagoko pertsonak sartzen dira **biztanleria aktiboaren** barruan, erreferentziazko astean, okupatu edo langabe gisa sailkatuta egoteko baldintzak betetzen dituztenak. **Biztanleria inaktiboak**, berriz, biztanleria aktibo gisa sailkatu gabeko pertsonak hartzen ditu. Informazio gehiago hemen: Eustaten «definizioak».

***4. grafikoa.** EAEko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (2023)*




**Iturria:** Biztanleria aktiboaren inkesta (INE, 2023)

Emakumeen eta gizonen okupazioari buruzko datuen analisia aztertuz gero, **emakumeen bereizte horizontala** dago **zerbitzuen sektorean**, batez ere emakume gazteena. Zerbitzuen feminizazio orokorra dago, are gehiago gazteen artean. Sektore horretan lan egiten dute 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 93,6k, hau da, 30 urteko edo gehiagoko emakumeek baino ehuneko 4 gehiago (% 89,6). Datu hori sektore horretan lan egiten duten adin bereko gizonena baino ehuneko 20,2 handiagoa da (% 77,5).

***8. taula.** Landunak, sexuaren, adinaren eta ekonomia-sektorearen arabera, EAEn (2022)*

| | 16-29 urte | | 30 urte edo gehiago | |
|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| **Nekazaritza** | % 0,2 | % 1,2 | % 0,5 | % 1,5 |
| **Industria** | % 5,4 | % 19,5 | % 8,5 | % 28,7 |
| **Eraikuntza** | % 0,9 | % 5,9 | % 1,4 | % 10,1 |
| **Zerbitzuak** | % 93,6 | % 73,4 | % 89,6 | % 59,6 |
| **Guztira** | % 100 | % 100 | % 100 | % 100 |

**Iturria:** Aktibitatearen udal-estatistika (Eustat, 2022)

Lan-merkatuan, prekaritatea sortzen duen elementuetako bat kontratazioaren behin-behinekotasuna da. Ildo horretan, 2015etik, soldatapeko gazteen **behin-behinekotasun tasa**[12] % 60tik gorakoa izan da, 2022an (% 55,7tik gorakoa izan zen) eta 2023an izan ezik. Egia da 2022an behin-behinekotasun tasa nabarmen jaitsi dela —ziurrenik, 2021aren amaieran Espainiako lan-erreforma berria indarrean jarri zelako—; baina, 2015etik 2023ra bitarteko aldi osoan, emakume gazteen behin-behinekotasun tasa gizon gazteena baino handiagoa izan da, 2015ean izan ezik (emakumeen % 61,1 eta gizonen % 64,1) —Gazteen Euskal Behatokia, 2024l—.

2023an, 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen behin-behinekotasun tasa % 46,0koa zen EAEn. Handiagoa da emakumeen artean (% 50,2) gizonen artean baino (% 42,2) —Gazteen Euskal Behatokia, 2024b—.

EAEn, 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren **lanaldi partzialeko enpleguaren tasa** % 30etik gorakoa da 2015etik, eta urte guztietan nabarmen handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Gainera, 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen eta gizonen arteko aldea 2020an ehuneko 9,7raino jaitsi bazen ere, urte horretatik aurrera gora egin du, eta ehuneko 18,4ra iritsi da 2023an (Gazteen Euskal Behatokia, 2024l).

Urte horretan, 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren lanaldi partzialeko enpleguaren tasa % 32,4koa da, eta nabarmen handiagoa da emakumeen artean (% 42,2) gizonen artean baino (% 23,8).

**9. *taula.*** *16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren lanaldi partzialeko enplegu-tasa, sexuaren arabera, EAEn (2023).*

| | Emakumeak | Gizonak | Guztira gazteak |
|---|---|---|---|
| **Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa** | % 42,2 | % 23,8 | % 32,4 |

**Iturria:** Enpleguaren eta egoera ekonomikoaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024b)

15 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren artean partzialtasuna handia izatearen arrazoi nagusia **prestakuntzarekin jarraitzea** da, eta tasa hori pixka bat handiagoa da emakumeen artean (% 44,8) gizonen artean baino (% 43,8), gainerako adin-taldeetan ez bezala; izan ere, gainerako adin-taldeetan, arrazoi nagusia **lanaldi osoko lanik aurkitu ezin izatea da.** Hori da 25 urtetik beherakoen bigarren arrazoia, eta ehuneko 2 handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (emakumeen % 40,8 eta gizonen % 38,8). Gainera, 25 urtetik gorako biztanleen artean portzentajeak askoz handiagoak badira ere, 15 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 1,1ek lanaldi partzialeko lana aukeratzen dute **beste pertsona batzuk zaindu ahal izateko** (INE, 2022c).

[12]Aldi baterako kontratua duten pertsonen ehunekoa, adin-talde bereko soldatapeko guztiekiko.

Okupazio-segregazioa, behin-behinekotasuna eta partzialtasuna dira, besteak beste, lan-merkatuan gertatzen den beste genero-desberdinkeria batean eragiten duten faktoreetako batzuk: generoko soldata-arrakala.

EAEn, **35 urtetik beherako biztanleriaren arteko generoko soldata-arrakala** murrizten joan da azken urteetan; 2022an apur bat gora egin du, eta aldea % 13,3koa izan da. Adin horretako gizonen eta emakumeen hileko batez besteko soldataren arteko aldea (1.498 € eta 1.299 €, hurrenez hurren) ia 200 eurokoa da, eta 2018arekin alderatuta murriztu bada ere (215 €), 50 euro igo da aldea aurreko urtearekin alderatuta.

***10. taula.*** *Generoko soldata-arrakala 35 urtetik beherako biztanlerian, EAEn (2018-2022)*

| | Emakumeak | Gizonak | Aldea | Soldata-arrakala[13] |
|---|---|---|---|---|
| **2018** | 1.204 | 1.419 | 215 | % 15,2 |
| **2019** | 1.209 | 1.391 | 182 | % 13,1 |
| **2020** | 1.270 | 1.421 | 151 | % 10,6 |
| **2021** | 1.271 | 1.420 | 149 | % 10,5 |
| **2022** | 1.299 | 1.498 | 199 | % 13,3 |

**Iturria:** Enpleguaren eta egoera ekonomikoaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024b)

Adinaren araberako aldeak are nabarmenagoak dira. 25 urtetik beherako soldatapekoek, batez beste, hilean 350 € gutxiagoko diru-sarrerak dituzte 25 eta 29 urte bitarteko soldatapekoek baino.

Nolanahi ere, generoko soldata-arrakala aztertzerakoan, kontuan hartu behar da emakumeek gizonek baino partzialtasun handiagoa dutela (baita 25 urtetik beherako biztanleriak ere, 25 eta 29 urte bitarteko biztanleriarekin alderatuta), eta badaudela ordainsari-aldea baldintza dezaketen beste faktore batzuk, hala nola lan mota, soldata-osagarriak eta abar. (Gazteen Euskal Behatokia, 2024m).

- Autoenplegua.

20 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, **norberaren konturako enplegu-tasa** % 3,9koa da. Sexuaren arabera, gizon gazteen autoenplegu-tasa (% 4,9) adin bereko emakumeen tasa (% 2,9) baino ehuneko 2 handiagoa da (Gazteen Euskal Behatokia, 2024b).

Euskal Ekintzailetzaren Behatokiaren (EEB-OVE)(2023) «Euskal Autonomia Erkidegoko Global Entrepeneurship Monitor 2022-2023» txostenaren arabera, EAEko ekintzaile gazteen ehunekoa oso txikia da. Zehazki, 25 eta 34 urte bitarteko pertsona ekintzaileen ehunekoa % 16,6 da EAEn, hau da, EBko herrialdeen batez besteko ehunekoaren ia erdia (% 31,3).

[13]Soldata-arrakalaren kalkulua: gizonen eta emakumeen hileko batez besteko soldataren arteko aldea, zati gizonen hileko batez besteko soldata.

EAEn, negozio berri bati ekiteko asmoa duten pertsonen % 44,3k (ekintzaile potentzialak)[14] 35 urte baino gutxiago dute. Hala ere, 35 urtetik beherakoen ehunekoa nabarmen murrizten da ekintzaileen artean, hasierako ekintzaileak[15] % 22,1 baitira, eta % 4, aldiz, ekimena finkatzea lortu dutenak (ekintzaile finkatuak[16]) (EEB-OVE, 2023).

Sexuaren eta adinaren arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, txosten berak adierazten du 2004. urteaz geroztik murriztu egin dela emakumeen eta gizonen jarduera ekintzailearen tasen (JET) arteko aldea, eta ia desagertu egin dela EAEn. 2004an, emakumeen artean, JETa % 2,7koa zen, eta gizonen artean % 7,7koa; 2022an, berriz, % 5,0koa eta % 5,4koa, hurrenez hurren (EEB-OVE, 2023).

- <u>Laneratzea Goi-mailako ikasketen ondoren:</u>

Goi-mailako ikasketak amaitu ondoren, **laneratze-tasa** txikiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, lortutako prestakuntza edozein dela ere: LH edo unibertsitatekoa. Alderik handiena LHko ikasketen ondorengo laneratze-tasan ikusten da, ehuneko 4 txikiagoa baita emakumeen artean.

***11. taula.*** *LHko eta unibertsitateko ikasketen ondorengo laneratzearen tasa, sexuaren arabera, EAEn (2022)*

| | Guztira | Emakume-ak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa[17]** | 83,2 | 80,8 | 84,8 |
| **Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa[18]** | 90,0 | 89,0 | 91,0 |

**Iturria:** Enpleguaren eta egoera ekonomikoaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024b)

Emakumeak eta gizonak bereizi egiten direnez ikasketa-eremuaren arabera (ikus hezkuntzaren atala), garrantzitsua da enplegu-tasa aztertzea espezialitatearen arabera. Ildo horretan, ikusten da **goi-mailako LHko** tituludunen enplegu-tasa **handiagoa dela emakumezko ikasle gutxiago dauden zikloetan**. Hori gertatzen da, besteak beste, eremu hauetan: instalazioa eta mantentze-lanak (enplegu-tasa: % 89,4), fabrikazio mekanikoa (% 88,0) edo garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 87,2) (INE, 2019).

Hala ere, enplegu-tasa txikiagoa duten heziketa-zikloen artean, tradizionalki feminizatuta egon diren espezialitateak daude, hala nola eremu hauek: gizarte eta kultur zerbitzuak eta komunitate-zerbitzuak (% 78,3), irudi pertsonala (enplegu-tasa: % 77,3) edo osasuna (% 74,7) -INE, 2019-.

[14]Datozen 3 hilabeteetan, negozio berri bati ekiteko asmoa adierazi duten pertsonak.
[15]0 eta 42 hilabete bitarteko ekintzailetza-jarduera duten pertsonak.
[16]42 hilabetetik gorako ekintzailetza-jarduera duten pertsonak.
[17]Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako tituludunetik, ehuneko zenbat diren okupatuak, ikasketak amaitu eta 12 hilabetera.
[18]Ikasketak amaitu eta hiru urtera lanean dabiltzanen ehunekoa, UPV-EHUn, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean graduatu diren eta aktibo dauden pertsona guztiak kontuan hartuta.

Ziklo gehienetan, emakumeen enplegu-tasa gizonena baino txikiagoa dela ikusten da, baita ikasleen artean emakume gehiago dauden eremuetan ere, hala nola medikuntzaren edo irudi eta soinuaren eremuetan.

Bitxia bada ere, emakumeen enplegu-tasarik handienak ikasleen artean oso emakume gutxi dauden eremuetan daude, hala nola garraioaren eta ibilgailuen mantentze-lanen eta fabrikazio mekanikoaren eremuetan.

***12. taula.*** *Goi-mailako LHko heziketa-zikloetako 2013-2014 ikasturteko tituludunen enplegu-tasa 2019an, zikloaren arabera, Espainian*[19]

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Eraikuntza eta obra zibila** | % 73,8 | % 69,1 | % 76,2 |
| **Arte grafikoak** | % 73,9 | % 79,1 | % 69,6 |
| **Beira eta zeramika; Zura, altzariak eta kortxoa; Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Arteak eta artisautzak** | % 74,2 | % 67,6 | % 83,7 |
| **Irudia eta soinua** | % 74,6 | % 72,3 | % 75,9 |
| **Osasungintza** | % 74,7 | % 73,3 | % 77,9 |
| **Elektrizitatea eta elektronika** | % 86,1 | % 78,3 | % 86,5 |
| **Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak** | % 87,2 | % 90,3 | % 87,1 |
| **Fabrikazio mekanikoa** | % 88,0 | % 86,3 | % 88,2 |
| **Instalazioa eta mantentze-lanak** | % 89,4 | % 79,5 | % 89,6 |

**Iturria:** Hezkuntza- eta prestakuntza-trantsizioari eta laneratzeari buruzko inkesta 2019 (INE, 2019)

Era berean, unibertsitate-graduatuen enplegu-tasa desberdina da ikasketa-eremuaren arabera. Enplegu-tasarik handiena informatikaren eremuak du (% 96,3), non emakumezko ikasleen ordezkaritza gutxi ohi baitute. Aitzitik, **enplegu-tasa txikienak normalean emakume gehiago egon ohi den eremuetan daude**, hala nola arteak eta humanitateen (% 77,1) eta hezkuntzaren (% 82,2) eremuetan.

Aipatzekoa da osasunaren eta gizarte-zerbitzuen eremuak, tradizionalki feminizatuta egon den adarrak, bigarren enplegu-tasarik handiena duela (% 92,1). Kasu horretan ere, gradu gehienetan gertatzen den bezala, emakumeen enplegu-tasa gizonena baino txikiagoa da (% 91,8 eta % 93,0, hurrenez hurren).

***13. taula.*** *2013-2014 ikasturteko unibertsitate-graduatuen enplegu-tasa 2019an, titulazioaren arabera, Espainian.*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Arteak eta humanitateak** | % 77,1 | % 78,0 | % 75,4 |
| **Hezkuntza** | % 82,2 | % 81,8 | % 83,5 |
| **Zientziak** | % 83,6 | % 83,4 | % 83,9 |
| **Negozioak, administrazioa eta zuzenbidea** | % 84,0 | % 82,7 | % 85,7 |
| **Zerbitzuak** | % 84,4 | % 82,8 | % 85,6 |
| **Gizarte-zientziak, kazetaritza eta dokumentazioa** | % 85,1 | % 85,9 | % 83,8 |
| **Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta albaitaritza** | % 88,6 | % 86,5 | % 90,8 |
| **Ingeniaritza, industria eta eraikuntza** | % 92,0 | % 90,8 | % 92,5 |
| **Osasuna eta gizarte-zerbitzuak** | % 92,1 | % 91,8 | % 93,0 |
| **Informatika** | % 96,3 | % 92,3 | % 97,0 |

**Iturria:** Unibertsitateko tituludunen laneratzeari buruzko inkesta (INE, 2019b).

[19]Taulan, % 75etik beherako eta % 85etik gorako enplegu-tasa duten heziketa-zikloak ageri dira.

**Emantzipazioa eta etxebizitza eskuratzea**

EAEn, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen **emantzipazio-tasa**[20] % 34,2 da adin horretako emakumeen emantzipazio-tasa (% 37,6) ehuneko 6,7 handiagoa da adin bereko gizonena baino (% 30,9), 2022ko datuen arabera (Gazteen Euskal Behatokia, 2024c).

**Emantzipatzeko batez besteko adina** 29,3 urtekoa da, eta 1,4 urte baxuagoa da emakumeen artean (28,5 urte) gizonen artean baino (29,9 urte).

***14. taula.*** *18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren emantzipazio-tasa eta batez besteko emantzipazio-adina, sexuaren arabera, EAEn (2022)*

| | Guztira | Emakume-ak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Emantzipazio-tasa (18-34 urte) (%)** | 34,2 | 37,6 | 30,9 |
| **Emantzipatzeko batez besteko adina (urteak)** | 29,3 | 28,5 | 29,9 |

**Iturria:** Emantzipazioaren eta etxebizitzaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024c)

**Etxebizitzaren edukitze-erregimenaren** arabera, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen arteko emantzipazio-tasa handiagoa da jabetzako etxebizitzetan (% 39) alokairuko etxebizitzetan baino (% 37,1). Sexuaren arabera, adin-talde horretako emakumeek emantzipazio-tasa handiagoa dute jabetzako etxebizitzetan haien adineko gizonek baino (% 39,5 eta % 38,3, hurrenez hurren), aldea txikia bada ere. Horrek ez du esan nahi etxebizitzaren titular bakarrak direnik. Aldiz, alokairuko etxebizitzetan, gizonen emantzipazio-tasa emakumeena baino ehuneko 4,5 puntu handiagoa da.

***15. taula.*** *18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren emantzipazio-tasa, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta sexuaren arabera, EAEn (2021)*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Jabetzako etxebizitza** | 39,0 | 39,5 | 38,3 |
| **Alokairuko etxebizitza** | 37,1 | 35,1 | 39,6 |

**Iturria:** Emantzipazioaren eta etxebizitzaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024c)

Gazteek emantzipatzeko duten zailtasunetako bat **etxebizitzaren garestitasunaren pertzepzioa** da. Hala identifikatzen dute EAEn oraindik emantzipatu ez diren 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 83,8k. Etxebizitza garesti egoteak emantzipatzea eragozten duela uste duten adin horretako emakumeen ehunekoa gizonen ehunekoa baino ia ehuneko 8 handiagoa da (% 87,8 eta % 80,0, hurrenez hurren)-Gazteen Euskal Behatokia 2024c-.

Soldata txikiagoa eta lan-baldintza okerragoak dituztelako emakumeek autonomia ekonomiko gutxiago izateak, zuzenean eragiten du bizimodu independentea eta emantzipazio egonkorra izateko aukeran. Emakume gazteen emantzipazio-estrategiak ez dira hain dibertsifikatuak, eta bikotekidearekin edo

[20]18 eta 34 urte bitarteko gazteen guztizkotik, emantzipatuta bizi diren adin bereko gazteen ehunekoa. Emantzipatutzat hartzen da jatorrizko etxetik kanpo bizi dena, Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) «erreferentziazko pertsona», «ezkontide» edo «ahaidetu gabeko pertsona» gisa agertzen direnak oinarri hartuta.

beste pertsona batzuekin bizitzeko proiektu bati lotutako emantzipazioaren mende daude nabarmenago. Espainiako datuen arabera, oro har, emakume gazteak gutxiago emantzipatzen dira bere kabuz (Emantzipazio Behatokia-CJE, 2023).

Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren (CJE) autonomia-erkidegoen araberako txostenak (2023) dioenez, « EAEko emantzipazio-tasa % 14,8koa zen 2023aren erdialdean, Espainiakoa baino puntu eta erdi txikiagoa. Horrek, gainera, esan nahi zuen ehuneko 0,6 jaitsi zela 2022ko lehen seihilekoarekin alderatuta. EAEko gazteek emantzipatzeko gaitasun txikiagoa izan zuten, nahiz eta gazteen langabeziak behera egin 2022ko lehen seihilekoaren eta 2023ko aldi beraren artean. Hori bai, EAEko gazte langileek Espainiakoek baino batez besteko soldata txikiagoa zuten, eta Espainiako emantzipazio-baldintza zailenetakoak zituzten. Hileko gazteen batez besteko soldataren % 100 erabilita ere, ezingo lirateke bakarrik bizi. Etxebizitza bat partekatuz bizi nahi bazuten, gela baten batez besteko kostua soldataren % 40 baino gehiagokoa zen. Gainera, etxebizitza bat erosi ahal izateko, EAEko gazte batek ia zazpi urteko soldata osoa erabili beharko luke sarrera ordaintzeko bakarrik» (2023:10).

2021ean, EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko emakumeen kopuruak (30.556 emakume) % 4,6 egin zuen gora, 2019arekin alderatuta (29.226 emakume), eta gizonen kopuruak, berriz, % 3,3 egin zuen behera urte horietan. Hala ere, emakumeen ia % 74k ez dute hurrengo urteetan etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrera nahikorik, ehuneko hori handiagoa da gizonena baino (% 70,1).

***16. taula.*** *Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak, diru-sarreren eta sexuaren arabera, EAEn (2021).*

| | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|
| **Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak** | 30.556 (% 100) | 34.302 (% 100) |
| **Nahikoa diru-sarrera dituzten pertsonak** | 7.983 (% 73,9) | 10.265 (% 29,9) |
| **Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonak** | 22.573 (% 26,1) | 24.037 (% 70,1) |

**Iturria:** Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena, genero-ikuspegitik aztertuta, 2022 (Etxebizitzaren Euskal Behatokia, 2023).

15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren % 43ri **zapuztu zaio emantzipatzeko itxaropena**, bai jatorrizko etxea ezin izateagatik utzi, bai gogoz kontra hara itzuli behar izateagatik. **Emantzipazio-proiektua** urtebeteko epean **ezin izango dutela gauzatu** uste duten emakumeen eta gizonen ehunekoen arteko aldea txikia da, pixka bat handiagoa gizonen artean (emakumeen % 42k eta gizonen % 44k) —Gazteen Euskal Behatokia, 2024c—.

Gainera, 2021ean (Gazteen Euskal Behatokia, 2024c), **18 eta 34 urte bitarteko** 52.061 pertsona **ezin izan dira emantzipatu, diru-sarrera eta errenta propioak izan arren**. % 51,4 gizonak ziren, eta % 48,6 emakumeak.

Horren harira, **Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak** etxebizitza-eskatzaileen erregistro-zerbitzua eskaintzen du adin nagusikoentzat. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 8,8 baino ez daude **Etxebiden izena emanda.** 25 urtetik aurrera, izena emanda dauden pertsonen ehunekoa handiagoa da, batez ere 30 eta 34 urte bitarteko emakumeen artean. Hau da, dagoeneko ez dira "gaztetzat" hartzen.

**Beste eremu batzuk**

- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskua

Baliabideak eskuratzeko orduan dauden genero-desberdinkerien ondorioz, emakumeek arrisku handiagoa dute pobrezia pairatzeko. **Pobreziaren feminizazioa**[21] mundu mailan hautemandako fenomenoa da, eta adierazten du pobreziak neurri handiagoan eragiten diela emakumeei gizonei baino (Amnesty International, 2023; NBE Emakumeak, 2023).

Gizarte-bazterkeria eta pobrezia pairatzeko arrisku-faktoreetako bat da **lan-merkatuaren aurreko egoera** (emakumeek, oro har, eta bereziki, gazteek, gizonek baino posizio txarragoa dute, lehen adierazi dugun bezala), ez bakarrik enpleguak baliabide ekonomikoak eskuratzeko aukera ematen duelako, baizik eta bizitza sozialean parte hartzeko ere ezinbestekoa delako. Gizarte-bazterkeria sortzen duten beste faktore batzuk dira kotizaziopeko babesa eskuratzeko aukera urria eta lan erreproduktiboaren aurreko jarrera; izan ere, oraindik ere gehienbat emakumeek hartzen dute bere gain (Carrasco Fernández, 2017).

Espainian, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean pobrezia edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku-tasa (AROPE adierazlea[22]) % 27,4koa da 2023an, eta bigarren handiena 16 urtetik beherakoen artean erregistratutako tasaren atzetik.

Bereziki, 2023. eta 2015. urteetan bakarrik da emakume gazteen AROPE tasa gizonena baino txikiagoa. Gainerako urteetan, **pobrezia edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku-tasa handiagoa da 16 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen artean**.

[21]Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gizarte-bazterketari eta pobreziari buruzko sektore-materiala. Esteka
[22]AROPE adierazleak, Europar Batasunak proposatua, pobrezia edo bazterkeria pairatzeko arriskuan dagoen biztanleriaren portzentajea jaso nahi du.

***5. grafikoa.*** *Pobrezia edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku-tasa (AROPE adierazlea) 16 eta 29 urte bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera, Espainian (2014-2023)*




***Iturria:*** *Bizi-baldintzen inkesta (INE, 2024)*

Adinaren, sexuaren eta nazionalitatearen arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, adierazi behar da 2023an Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren % 57,0[23] eta Europako Erkidegoko atzerritarren % 36,5[24] pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan zegoela, hau da, Espainian bertakoen artean erregistratutako AROPE tasa (% 22,3) baino ehuneko 34,7 eta 14,2 gehiago (INE, 2024).

**Bertako eta atzerriko biztanleen artean AROPE tasan dagoen alde handiak**, batez ere Europar Batasunekoak (EB) ez diren pertsonen artean, agerian uzten du ezinbestekoa dela **genero-ikuspegi intersekzionala txertatzea** pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren azterketan.

EAEko biztanleria osoarentzat 2022an erregistratutako AROPE tasa % 15,5ekoa da, eta, beraz, EAE da Espainian **gizarte-bazterkeria eta/edo pobrezia pairatzeko arriskuan dauden pertsonen ehuneko txikiena duen lurraldea** (INE, 2024).

2022an, EAEn, **emakume gazteak buru dituzten etxeen**[25] % 18,9 **pobrezia-arriskuan daude**, gizon gazteak buru dituzten etxeak baino (% 14,5) ehuneko 4,4 gehiago —ikus 17. taula— (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d).

EAEko **16 eta 29 urte bitarteko biztanleen**[26] **pobrezia errealaren tasa**[27] (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d) % 4,8koa da 2022ko azken datuen arabera. Sexuaren arabera, EAEko 16 eta 19 urte bitarteko emakumeen % 5,1 pobrezia-egoeran dago. Tasa hori adin bereko gizonena baino (% 4,5) zertxobait handiagoa da —ikus 17. taula—.

---

[23]Erkidegokoak ez diren atzerritarrak: Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrak.
[24]Erkidegoko atzerritarrak: Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako atzerritarrak.
[25]Pobrezia-arriskuan dagoen 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren biztanleen ehunekoa (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d).
[26]Benetako pobrezia egoeran dauden 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa adin bereko gazte guztietatik (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d).
[27]Benetako pobreziak barne hartzen dituen gorabeheretan, pobreziaren mantentze- eta metatze-dimentsioetan ageri diren oinarrizko premiak behar bezala estaltzeko ezintasunaren arrisku-egoeran, ez dago nahikoa konpentsatuta biztanleriaren eguneroko bizitzan, pobreziaren bizipenetik aldentzeko adinako gutxieneko ongizatea eskuratu ahal izateko. Eusko Jaurlaritza, 2016.

EAEko **gazteen etxeetako pobrezia errealaren tasari** dagokionez, tasa hori % 12,7koa da 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxe guztiekin alderatuta. Benetako pobrezia egoeran dauden emakume gazteek buru dituzten familien ehunekoa gizon bat buru dutenena baino ehuneko 3,6 handiagoa da.

***17. taula.*** *Gazteen pobrezia-arriskua, pobrezia errealaren tasa eta pobrezia-tasa, sexuaren arabera, EAEn (2022)*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Pobrezia-arriskua gazteen familietan (< 35 urte)** | 16,6 | 18,9 | 14,5 |
| **16-29 urteko biztanleriaren benetako pobrezia-tasa** | 4,8 | 5,1 | 4,5 |
| **Pobrezia errealaren tasa gazteen familietan (< 35 urte)** | 12,7 | 14,6 | 11,0 |

**Iturria:** Pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d)

EAEko 18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 2,9k **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** (DBE) jasotzen du. Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari buruzko aurreko datuen ildotik, prestazio hori jasotzen duten emakume gazteen ehunekoa gizonen ehunekoa baino handiagoa da (% 3,5 eta % 2,4, hurrenez hurren), 2022ko datuen arabera (Gazteen Euskal Behatokia, 2024d).

- <u>Osasuna eta heriotza-tasa:</u>

Generoak osasunean duen eraginaren azterketan, garrantzitsua da generoaren, pobreziaren eta baliabideak eskuratzearen arteko intersekzioa aipatzea. EAErako berariazko azterketarik ez dagoen arren, orotariko azterlanek adierazten dute **faktore sozialek osasunean duten garrantzia**.

«Generoa eta Pobrezia: Osasunaren baldintzatzaile sozialak eta emakumeen zerbitzu soziosanitarioetarako sarbidea» (European Anti Poverty Network —EAPN—, 2020) azterketak adierazten duenez, adinak eragin handia du osasunean, eta, beraz, gazteak dira arlo sanitarioan zaurgarritasun berezia duten adin-tarteetako bat.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriek eta genero-estereotipo tradizionalek eragin nabarmena dute osasunean, bereziki emakume gazteen artean.

Alegia, hauek dira **emakume gazteengan bereziki eragina duten osasun-arazoetako** batzuk: hilekoaren pobrezia —hilekorako produktuak ordaintzeko zailtasunei dagokienez—; elikadura-jokabidearen nahasmenduak (EJN), hala nola anorexia edo bulimia —emakumeek pairatzen duten presio estetikoarekin lotura handia dute—; edo sexu- eta ugalketa-osasunari lotutako arazoak, batez ere STI, GIB eta nahi gabeko haurdunaldia —askotan, informazio- eta prebentzio-baliabideak ezin eskuratzearekin lotuta daude—.

Biztanleriaren **osasun-arazo kronikoak** handitu egiten dira adinak aurrera egin ahala. Prebalentzia txikiena 25 urtetik beherakoen artean dago. Zehazki, 15 eta 24 urte bitarteko gizonen prebalentzia % 16,6koa da, eta emakumeena % 17,1ekoa.

**Osasun mentaleko** arazoak, hala nola depresioa, antsietatea eta portaeraren nahasmenduak dira nerabeen eta gazteen artean gaixotasuna eta desgaitasuna eragiten duten arrazoi nagusiak (Osasunaren Mundu Erakundea —OME—, 2021).

15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, **antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia** nabarmen handiagoa da emakumeen artean (% 25,0) gizonen artean baino (% 12,3). Aipagarria da, gainera, 2018. eta 2023. urteen artean izandako igoera —2018. urtean ehunekoak murriztu egin ziren 2013. urtearekin alderatuta—. Gorakada nabarmen horren hipotesietako bat da pandemiak pertsonen osasun mentalean izan duen eragina, bereziki emakume gazteenena.

***6. grafikoa.*** *Antsietate- edo depresio-sintomak izan dituzten 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera, EAEn (2023)*




**Iturria:** Gazteen adierazleak. EAEko gazteen panorama (Gazteen Euskal Behatokia 2024l)

**Portaera-nahasmenduei** dagokienez, **EJN**ek garrantzi handia dute gazteen artean. Gorputzaren autopertzepzioarekin lotutako nahasmenduak dira; horien artean, anorexia nerbiosoa eta bulimia nerbiosoa nabarmentzen dira. Emakume gazteen artean (Osakidetza, d.g.) prebalentzia handiagoa dela jakin arren, horri buruzko azterlanak urriak dira eta ez daude eguneratuta; beraz, ez dago haien intzidentziari buruzko daturik.

Horri buruzko estatistikarik ez dagoen arren, aipatu dugun bezala, genero-rolek gizartean eragiten duten presio estetikoa EJNak sortzeko faktoretzat hartzen da emakume gazteen artean, osasunaren arloko sektore-materialean[28] adierazten den bezala.

[28]Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu osasunari buruzko sektore-materiala. Esteka

Nahasmendu horien larritasunaz jabetuta, Eusko Jaurlaritzak osasun-politiken lehentasunen artean ezartzen du EJNen arreta, haurren eta gazteen osasun mentalarekin eta patologia dualarekin batera.

Gazteen artean, osasunari buruz landu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat **suizidioa** da. Hainbat faktorek eragiten duten fenomenoa bada ere, osasun mentaleko arazoak dira suizidiorako arrisku-faktoreetako bat (Osakidetza, 2019). Gaur egun, suizidioa da gazteen eta nerabeen heriotza-kausa nagusia Espainian (De la Torre, 2023).

Suizidioaren prebalentzia nabarmen handiagoa da gizon gazteen artean emakumeen artean baino. EAEn, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, **suizidioaren eta norbere buruari eragindako lesioen**[29] **ondoriozko heriotza-tasa** % 4,5 da. Gizonen tasa emakume gazteena baino ehuneko 2,4 handiagoa da. Lurralde historikoaren arabera, Arabak ditu tasarik handienak, bai gizonen artean (% 8,5), bai emakumeen artean (% 4,5).

***7. grafikoa.*** *Suizidioaren eta norbere buruari eragindako lesioen ondoriozko heriotza-tasa 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (2022)*




**Iturria:** Osasunaren eta hilkortasunaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e)

Hala ere, horri buruzko azterlan batzuek adierazten dute **emakumeek suizidio-saiakera gehiago egiten dituztela**, baina gizonak dira hilgarrienak buruaz beste egitea erabakitzen dutenean. Suizidio-saiakeren prebalentzia handiagoa da emakumeen artean (1,68), gizonen artean baino (1,24), Espainiako adin-talde guztietan (Mejías Martín, 2020).

Gizonen suizidio-tasak handiagoak dira, erabilitako metodoa edozein dela ere, sendagai bidezko intoxikazioaren metodoan izan ezik, emakume gehiagok erabiltzen baitute metodo hori (Mejías Martín, 2020).

Gizonen suizidio-tasa handiagoei buruzko azalpen onargarri bat, osasun mentaleko arazoen intzidentzia txikiagoa izan arren, gizonen artean antsietatea eta depresioa txarto diagnostikatzea edo gutxi diagnostikatzea da (Bacigalupe, Cabezas, Baza eta Martín, 2020; Möller-Leimkühler, Gazteen Euskal Behatokian aipatzen den bezala, 2019[30]).

[29] 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 pertsonako tasak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e).
[30] Gazteen Euskal Behatokia, 2019. Osasun Mentalaren Munduko Eguna

Depresio- eta antsietate-diagnostikoak, osasun mentaleko baldintza berdinetan, ohikoagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino, baita sendagaien preskripzioa ere. OPIK Osasunaren Determinatzaile Sozialei buruzko ikerketa-taldeak horixe berretsi du ikerketa batean (Bacigalupe, Cabezas, Baza eta Martín, 2020), eta adierazi du lotura dagoela gizartearen genero-desberdinkeriaren eta osasun mentaleko arazoak diagnostikatzerakoan dagoen desberdinkeriaren artean.

Azterlan berean, baztertu egiten da emakumeen zaurgarritasun biologiko handiagoari buruzko hipotesia, eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen bizi-baldintza desberdinak aipatzen dira osasun mentaleko genero-desberdinkeriak azaltzeko faktore gisa (Bacigalupe, Cabezas, Baza eta Martín, 2020).

Horren harira, osasun mentaleko arazoek emakume gazteengan duten intzidentzia handiagoan eragina izan dezaketen alderdien artean, adierazten da, nerabezaroan, feminitatearen eraikuntza onarpenean eta perfekzionismoan oinarritzen dela, eta horrek autoexijentzia akademiko handia dakar. Gainera, adin-tarte horretan hasten dira emakumeak mendekotasun- eta abusu-harremanak izaten, eta sare sozialen munduan sartzen dira, non beren gorputzek presio estetiko handia pairatzen duten (Martínez-media, Bacigalupe, Martín eta Barbuscia, 2023).

Gizonek, aldiz, litekeena da maskulinitate hegemonikoari lotutako genero-aginduen ondorioz —besteak beste, sendotasuna, arrazionaltasuna, autonomia edo independentzia— osasun mentaleko arazoak ezkutatzea, eta horregatik, baliteke, gizonengan antsietatea eta depresioa gutxi diagnostikatzea, eta suizidiorako arrisku handiagoa eragitea (Möller-Leimkühler, Gazteen Euskal Behatokian aipatzen den bezala, 2019).

Gazteen artean, zirkulazio-istripuak dira heriotza eragiten duten kanpoko beste arrazoi nagusietako bat. EAEn, **zirkulazio-istripuetako heriotza-tasa**[31] % 1,9 da. 2022an, 15 eta 29 urte bitarteko gizonen heriotza-tasa % 3,8koa izan da, eta emakumeena, berriz, % 0,0koa (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e).

Maskulinitate hegemonikoak garrantzia hartzen du hemen ere, identitate maskulinoaren eraikuntzan arriskua funtsezkoa baita. Arriskuak hartzea, esaterako, ausarkeriaz gidatzea, gizon askok beren gizontasuna frogatzeko eta baieztatzeko modu bat da (Farapi S.L., 2009).

**Sexu- eta ugalketa-osasuna** funtsezkoa da gazteen osasunerako, gaztaroan gertatu ohi baitira lehen sexu-esperientziak. Horri buruzko informazioari eta orientazioari esker, harreman osasungarriagoak eta berdinzaleagoak sor daitezke, sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG) hartzeko arriskua murrizten da eta nahi gabeko haurduntzak saihesteko antisorgailu-metodo egokiak ezartzen dira.

[31] 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 pertsonako tasak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e).

Sexu-transmisiozko infekzio berrien tasa[32] esponentzialki handitu da 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean azken urteetan. 2022an, sexu-transmisiozko infekzio berrien tasa % 60,7koa da emakume gazteen artean eta % 73,6koa gizon gazteen artean, hau da, 2012an baino ehuneko 61 eta 50 gehiago, hurrenez hurren.

Aipagarria da 2012-2022 epealdi osoan gizonen tasa emakumeena baino handiagoa dela, eta azken urteetan erregistratu da arrakala handiena (ia ehuneko 13koa).

***8. grafikoa.*** *Sexu-transmisiozko infekzio berrien tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera, EAEn (2012-2022)*




**Iturria:** Gazteen adierazleak. EAEko gazteen panorama (Gazteen Euskal Behatokia 2024l)

Sexu-transmisiozko infekzioek gizonengan duten intzidentzia handiagoaren hipotesietako bat gizonei kulturalki esleitutako arrisku-portaerak dira, eta horien artean daude, halaber, arriskua dakarten sexu-harremanak izatea.

**Arriskua dakarten sexu-harremanek** eragin zuzenekoa dute pertsonen sexu- eta ugalketa-osasunean. 2016ko datuen arabera, EAEn 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 15,2k sexu-harreman arriskutsuak izan ditu. Gizon gazteen ehunekoa (% 16,9) emakume gazteena baino ehuneko 3,5 puntu handiagoa da. Adinaren arabera, ikusten da adingabeek dituztela, proportzioan, arriskua dakarten sexu-harreman gehien.

[32]Infekzio gonokozikoaren, sifiliaren edo chlamydiaren infekzio berrien kopurua 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, adin-tarte bereko 10.000 pertsonako.

***9. grafikoa.*** *Arriskua dakarten sexu-harremanak izan dituzten gazteen ehunekoa, adinaren eta sexuaren arabera , EAEn (2016)*




**Iturria:** Osasunaren eta hilkortasunaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e)

Arriskua dakarten sexu-harremanak dira, metodo antikontzeptiborik erabili gabe edo txarto erabilita, nerabezaroko haurdunaldiaren arrazoi nagusiak. Heltze-etapa horretan gertatzen diren haurduntza gehienak nahi gabekoak dira. Gainera, arrisku handiagoa dute bai gaztearen osasunerako, bai haurrarentzat, 20 urtetik aurrera gertatzen diren haurduntzekin alderatuta (International Plana, d.g.).

EAEn, **15 eta 17 urte bitarteko emakumeen haurduntza-tasa** % 3,8koa da, 2022ko datuen arabera (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e). Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak du tasarik handiena (% 4,5), ondoren Arabak (% 4,0) eta azkenik Gipuzkoak (% 2,6).

15 eta 29 urte bitarteko emakumeetan, EAEko **haurdunaldia borondatez etetearen (HBE) tasa**[33] % 13,8koa da. Adin horien artean, tasarik altuena 20 eta 24 urte bitarteko emakumeena da (% 17,4), eta ondoren 25 eta 29 urte bitarteko emakumeena (% 16,6). Lurralde historikoen arabera, HBEaren tasa oso antzekoa da, eta Gipuzkoan ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 12,5).

***18. taula.*** *15 eta 29 urte bitarteko emakumeek haurdunaldia borondatez etetearen tasa, adinaren eta lurralde historikoaren arabera, EAEn (2022)*

| | 15-29 urtekoak, guztira | 15-29 urteko emakumeak, adinaren arabera | | | 15-29 urteko emakumeak, lurralde historikoen arabera | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| **HBE tasa** | 13,8 | 7,6 | 17,4 | 16,6 | 14,2 | 14,5 | 12,5 |

**Iturria:** Osasunaren eta hilkortasunaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024e)

[33]Adin-talde bakoitzeko 1.000 emakumeko tasak (Gazteen Euskal Behatokia, 2023).

HBEaren tasaren bilakaerak (% 11,8koa zen 2010etik 2022ra) ez du joera argirik erakusten, % 11,8tik % 14,7ra bitartekoa izan baita aldi osoan. Salbuespen bakarra 2020an gertatu da, tasa % 5,7ra jaitsi baita, ziurrenik urte horretan pandemiaren kontrolerako ezarritako harreman sozialen eta mugikortasunaren murrizketen ondorioz.

- Adikzioak:

EAEn, **ohiko erretzaileen ehunekoa**[34] 15 eta 29 urte bitarteko biztanle guztiekiko % 17,4 da, apur bat handiagoa emakumeen artean (% 17,8) gizonen artean baino (% 17,0) —Gazteriaren Euskal Behatokia, 2024e—.

Azken 23 urteetan, tabakoaren ohiko kontsumoa nabarmen murriztu da, batez ere emakume gazteen artean.

***10. grafikoa.** Tabakoaren ohiko kontsumoaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera, EAEn (2000-2023).*




**Iturria:** Gazteen adierazleak. EAEko gazteen panorama (Gazteen Euskal Behatokia 2024l)

**Alkoholaren kontsumoari** dagokionez, 2023ko datuek adierazten dutenez, emakume gazteen % 34,4k alkohol gehiegi kontsumitu dute, eta tasa hori ehuneko 3,6 handiagoa da gizon gazteen artean baino. 2008-2023 aldian ikusten da arriskua dakarren alkohol-kontsumoa handiagoa izan dela emakumeen artean gizon gazteen artean baino, baina, hain zuzen ere, emakumeen artean erregistratu da jaitsiera nabarmenena 2012tik aurrera (emakume gazteen % 44,8k eta gizon gazteen % 36,5ek alkohol gehiegi kontsumitzen dute) —Gazteen Euskal Behatokia, 2024l—.

[34]Azken hilabetean, tabakoa egunero erre duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztiekiko.

***11. grafikoa.*** *Arriskua dakarren alkohol-kontsumoa gazteen artean, sexuaren arabera, EAEn (2008-2023)*




**Iturria:** Gazteen adierazleak. EAEko gazteen panorama (Gazteen Euskal Behatokia 2024l)

Genero-rolek gazteen alkohol-kontsumoan duten eraginaren azterketa intersekzionalak aukera ematen du jakiteko eragin hori hiru etapa bereizitan gertatzen dela (Fernández, Dema eta Fontanil, 2019). Lehen etapa 13 eta 15 urte bitartean gertatzen da, kontsumitzen hasten denean, normalean adin handiagoko pertsonen eraginez, sexuaren araberako desberdintasunik gabe. Hurrengo etapan, 16 eta 18 urte bitartean, kontsumoa normalizatu egiten da eta gehiegi kontsumitzen da. Gazteen artean, jokabide hori bat dator gizonezkoen genero-aginduekin, baina emakumeentzat genero-sistema tradizionalarekin haustea dakar. Azken etapan, 19 eta 24 urte bitartean, emakumeak alkoholaren kontsumoarekin lotutako arrisku-praktikak murrizten hasten dira eta gizonak, berriz, praktika horiei eusten diete eta finkatzen dituzte. Etapa horretan, emakume gazteek ahalegin handiagoa egiten dute genero-roletan sartzeko, eta, beraz, kontsumoa murrizten dute. Aldi horretan, ordea, substantziak kontsumitzen dituzten emakumeekiko estigma soziala indartzen da (Gizakia Helburu elkartea, 2021).

**Kalamu kontsumoaren** prebalentzia —2023ko datuak— txikiagoa da gazteen artean beste substantzia batzuekin alderatuta (% 9,7). Kontsumoa hedatuago dago gizonen artean (% 13,8) emakumeen artean baino (% 5,2).

2000tik 2023ra bitartean kalamuaren kontsumoak izan duen bilakaerak erakusten du kontsumoak nabarmen egin duela behera 2006tik aurrera, bai emakume gazteen artean, bai gizon gazteen artean, eta urte horretan erregistratu zen aldi osoko kontsumo-portzentajerik handiena.

***12. grafikoa.*** *Kalamuaren azken hilabeteko kontsumoa 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, sexuaren arabera, EAEn (2000-2023)*




**Iturria:** Gazteen adierazleak. EAEko gazteen panorama (Gazteen Euskal Behatokia 2024l)

Kalamuaren kontsumoan emakumeen eta gizonen artean dagoen aldeari buruzko azalpen nagusia legez kanpoko drogen gehiegizko kontsumoak batzuentzat eta besteentzat duen eragin sozial desberdinean datza. Emakumeek substantzia horiek kontsumitzea genero-rol tradizionalen haustura gisa ikusten da, eta horrek zigor sozial handiagoak eragiten ditu gizonen kasuan baino, hala nola gaitzespena eta estigma soziala. Gizarteak uste du emakumeek kontsumitzea gizonek kontsumitzea baino antinaturalagoa dela, legez kanpoko drogen kontsumoa historikoki maskulinoa denarekin lotutako praktika baita (Soler, Molina, Romera eta Monpeán, 2022).

Generoaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da **hipnosedanteak eta analgesiko opioideak** direla biztanlerian oro har emakumeen artean gizonen artean baino kontsumo-prebalentzia handiagoa duten substantzia bakarrak.

Deustuko Unibertsitateko Droga Gaietako Institutuak (2022) EAEko ikasleen artean drogen erabilerari buruz egindako azterlanaren arabera, biztanleria horren % 20k gutxienez noizbait psikofarmakoak kontsumitu ditu (% 13,4k errezetarekin eta % 6,6k errezetarik gabe). Emakume ikasleen kontsumoa gizonena baino handiagoa da. EAEko emakume ikasleen % 15,9k psikofarmakoak kontsumitu dituzte noizbait errezetarekin, eta % 8,2k gauza bera egin du errezetarik gabe; gizonen aldera % 11,4k eta % 5,4k egin dute, hurrenez hurren.

Espainian, Osasunaren Determinatzaile Sozialei eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldearen (OPIK, 2023) ikerketaren arabera, 14 eta 18 urte bitarteko emakume gazteen % 24,1ek adierazi dute noizbait psikofarmakoak kontsumitu dituela bizitzan, eta gizon gazteen artean, berriz, % 15,3k. Gainera, gradiente positiboa ikusten da adinak gora egin ahala. 17 urterekin, emakumeen % 26,9k kontsumitu dituzte jada antsiolitikoak eta hipnosedanteak, eta 18 urterekin, ehunekoa % 30etik gorakoa da. Gizonen kasuan, kontsumoaren prebalentzia

txikiagoa bada ere, ikusten da adinak gora egin ahala kontsumoaren prebalentzia hazi egiten dela, 14 urterekin % 11,6 izatetik 18 urterekin % 21,7 izatera igarotzen baita, ia bikoitza.

Sexuaren araberako kontsumoan dauden desberdintasunei buruzko hipotesi bat da antsietatearen eta depresioaren diagnostikoa, eta emakumeek gizonek baino maizago pairatzen dutela prozesu horien medikalizazioa. Psikofarmakoen preskripzioa (antsiolitikoak edo antidepresiboak) bikoitza ere izan daiteke emakumeen artean gizonen artean baino, eta goranzko joera izan du azken urteetan (Bacigalupe, Cabezas, Baza eta Martín, 2020; Martínez-media, Bacigalupe, Martín eta Barbuscia, 2023).

Psikofarmakoen kontsumoaren bilakaerak, 2017arekin alderatuta, hazkunde neurritsua baina etengabea izan du, bai errezetadun substantzien artean, bai errezetarik gabekoen artean. Pandemiaren eraginak eta hari eusteko ezarritako neurriak, beharbada, igoera hori eragin dute, baina datozen urteetako bilakaera aztertu beharko da hori baieztatzeko (Deustuko Unibertsitateko Droga Mendekotasunen Institutua, 2022).

Gazteen artean, **mendekotasuna eragiten duten beste jokabide batzuk** Interneten erabilera problematikoarekin eta joko patologikoarekin lotuta daude.

**Interneten erabilera problematikoak** behera egiten du EAEn adinak gora egin ahala, eta ohikoagoa da 21 urtetik beherakoen artean (Osakidetza, 2024). Zehazki, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 2,2k Interneten erabilera problematikoa egiten dute (Gazteen Euskal Behatokia, 2022).

21 urtetik beherako emakumeen arteko prebalentzia gizonena baino ehuneko 8,7 puntu handiagoa da (% 24,7 eta % 16,0, hurrenez hurren) —Osakidetza, 2024—.

**Ausazko jokoei** dagokienez, onlineko jokoan hasteko adina 29,1 urtekoa da EAEn, eta 28,8 urtekoa aurrez aurreko jokoan hasteko adina. Emakumeak beranduago hasten dira ausazko jokoetan jokatzen (31,4 urterekin onlineko jokoan eta 30,8 urterekin aurrez aurreko jokoan) gizonak baino (28,6 eta 26,7 urte, hurrenez hurren) —Osakidetza, 2024—.

**Balizko joko patologikoaren prebalentzia** 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean % 0,8 da. "Gazteak eta jokoa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021" txostenaren arabera (Jokoaren Euskal Behatokia, 2021), joko-patologiaren bat duten gazte guztiak gizonak dira, eta ez da emakume bakar baten kasua erregistratzen. Horri buruzko teoria nagusia da gazteen jokoa oso maskulinizatuta dagoela.

- Euskararen erabilera

Gazteen euskararen erabilerak gora egin du azken urteotan EAEn. 2021ean, 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 37,8k lagunartean erabiltzen dute euskara, 2001ean baino ehuneko 13 gehiagok (% 24,8). Sexuaren arabera, ikusten da **lagunartean euskararen erabilera gehiago hazi dela emakume gazteen artean**. Azken datuen arabera, 16 eta 24 urte bitarteko emakume gazteen ia % 45ek euskaraz hitz egiten dute lagunekin, adin horretako gizonen % 31,4ren aldean.

***13. grafikoa.*** *Euskararen lagunarteko erabilera 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera, EAEn (2001-2021)*




**Iturria:** Aisialdiko, kulturako eta kiroleko adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024f)

Aisialdian, **euskaraz irakurtzeko ohitura** ere ohikoagoa da emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino. 15 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen % 32,8k irakurri dute libururen bat euskaraz inkesta egin aurreko 3 hilabeteetan, gizonek baino (% 26,2) ehuneko 6,6 gehiagok —Gazteen Euskal Behatokia, 2024f—.

- Aisialdiko eta denbora libreko baliabideak (kultura, kirola eta sare sozialak)

Aisialdiko eta denbora libreko baliabideak oso garrantzitsuak dira **gazteen garapen indibidual eta kolektiboko.** Gazteen aisialdi-jarduera ohikoenetako batzuk jarduera artistikoak edo kulturalak, kirola edo sare sozialen erabilera dira.

EAEn, **arte-jardueretan parte hartzen** duten 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoak nabarmen egin du gora azken urteetan: 2008an % 39,8 ziren, eta 2021ean, berriz, % 76,8.

2008-2021eko aldi osoan, emakume gazteen parte-hartzea handiagoa izan da jarduera artistikoetan gizonena baino. Azken urtean, ehuneko 4,6raino murriztu da aldea (emakumeen % 79,1 eta gizonen % 74,5).

***19. taula.*** *Jarduera artistikoetan parte hartzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren arabera, EAEn (2008-2021)*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **2008** | 39,8 | 45,4 | 35,5 |
| **2012** | 42,9 | 47,1 | 38,8 |
| **2016** | 55,1 | 59,4 | 51,0 |
| **2018** | 44 | 51,4 | 37,1 |
| **2021** | 76,8 | 79,1 | 74,5 |

**Iturria:** Aisialdiko, kulturako eta kiroleko adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024f)

**Kultura-ekitaldiei** dagokienez, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean kontzertuek dute bertaratze-ehuneko handiena (gazteen % 64,5), ondoren zinemak (% 52,8), museoek (% 41,2) eta antzerkiak (% 16,5).

Lehentasun-hurrenkera hori ez da aldatzen sexuaren arabera; hala ere, emakumeen eta gizonen parte-hartzean ezberdintasun batzuk ikusten dira, ekitaldi motaren arabera. Emakumeak gizonak baino gehiago joaten dira kontzertuetara (emakumeen % 67,7 eta gizonen % 61,5) eta antzerkira (% 18,0 eta % 15,1, hurrenez hurren); gizonak, berriz, gehiago joaten dira zinemara (gizonen % 53,7 eta emakumeen % 51,9 ) eta museoetara (% 42,1 eta % 40,3, hurrenez hurren).

***14. grafikoa****. Kultura-ekitaldietako parte-hartzea 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren artean, sexuaren eta motaren arabera, EAEn (2022)*




**Iturria:** Aisialdiko, kulturako eta kiroleko adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024f)

Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2019) agerian uzten zuen hezkuntza-maila aldagai garrantzitsua dela kultura-praktikak kontuan hartzeko eta, sexuarekin eta adinarekin intersekzionatzen duela. Gainera, emakumeek gizonek baino gehiago hartzen dute parte kultura- eta antzerki-jardueretan.

Genero-ikuspegitik, emakume eta gizon gazteen arteko aldeak, kultura-jardueren kontsumoan eta partaidetzan, bien esperientzietan eragiten duten faktoreak elkartuz azal daitezke. Hasteko, genero-sozializazioak eragina du haien interes eta portaeretan. Neskak artearekin eta kulturarekin lotutako jardueretara animatzen dira —feminitatearekin lotutakoak—, eta mutilak, berriz, jarduera fisikoagoetara eta ekintzazkoagoetara. Horrela, genero-itxaropenek eragina dute genero bakoitzerako egokienak izan daitezkeen jardueren pertzepzioan.

Denbora librea ere alda daiteke sexu bakoitzari esleitzen zaizkion familia-erantzukizunen edo familia-laguntzaren arabera; bai eta espazio seguruak hautematearen eta identifikatzearen arabera ere emakumeentzako kultura- edo kirol-ekitaldi eta -azpiegituren barruan.

Azkenik, kulturaren, gizartearen eta kirolaren ekoizpen-sektoreetan emakumeen ordezkaritza eta ikusgarritasuna orekatua izatea erabakigarria da gazteek parte har dezaten. Emakume gazteek —edo, hala badagokio, gizon gazteek— sentitu dezakete espazio horiek ez dituztela haien esperientziak erakusten edo haien interesak islatzen. Gainera, botere- eta ordezkaritza-posizioetan kultura-industriako sortzaile eta langile gisa emakumeek duten presentzia gizonena baino are txikiagoa da (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022).

Bestalde, **kirola erregulartasunez egiteari** dagokionez, hedatuago dago gizonen artean emakumeengan baino. 15 eta 29 urte bitarteko gizonen % 59,6k kirola egiten dute gutxienez astean hiru aldiz, emakumeek baino ehuneko 13,6 gehiagok (Gazteen Euskal Behatokia, 2024f).

«Emakume gaztea eta kirol-jarduera» izeneko azterlanak[35] (Mapfre-Rey Juan Carlos Unibertsitatea, 2019) gazteen artean kirola egiteko oztopoetako batzuk aipatzen ditu (ez dira elkarren artean baztertzaileak). Zama akademikoak kirola uztea ekar dezake, eta emakume gazteen artean arazo akademikoekiko kezka eta exijentzia handiagoa da gizon gazteen artean baino.

Gainera, emakume gazteek uste dute kirolerako gizon gazteek baino trebetasun gutxiago dutela. Uste horrek lotura estua du azterlanean adierazitako beste alderdi batzuekin. Alde batetik, genero-rolen iraunkortasuna, emakume kirolariaren onarpen txikiagoaren eta erreferente faltaren inguruan. Izan ere, azken urteetan emakumeak kirolean duen parte-hartzeak bilakaera positiboa izan duen arren, oraindik eutsi egiten zaie joera soziokulturalei, eta joera horiek mugatu egin dezakete emakumearen ingurune hurbilean kirola egitea —babes eta onarpen sozial txikiagoa edo estaldura mediatiko txikia— (Rey Juan Carlos Unibertsitatea, 2019). Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, neska gazteek familiaren eta gertuko ingurunearen laguntza txikiagoa dute kirola egiten jarraitzeko, eta, horregatik, sarritan, kirola egiteari utzi eta alderdi akademikoa lehenesten dute.

Azkenik, adierazi behar da Espainian 16 eta 24 urte bitarteko gazte gehienek Internet erabiltzen dutela, gizonen % 99,9k eta emakumeen % 99,7k (INE, 2023c). 15 eta 29 urte bitarteko EAEko biztanle gehienek **sare sozialak erabiltzen dituzte**. WhatsApp da gehien erabiltzen den sare soziala, emakume gazteen % 98,0k eta gizon gazteen % 96,6k erabiltzen du egunero. Gainerako sare sozialekin alderatuta, emakumeen eta gizonen arteko aldea handiagoa da. Emakume gazteek Instagram (emakume gazteen % 83,1ek), Spotify (% 74,7) eta Tik Tok (% 41,5) erabiltzen dituzte egunero. Aldiz, egunero Youtube erabiltzen duten gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da: % 72,4 eta % 44,2, hurrenez hurren.

[35]Mapfre-Rey Juan Carlos Unibertsitatea, 2019. Mujer joven y actividad física

***15. grafikoa.*** *Sare sozialen gazteen eguneroko erabilera, sexuaren eta sare sozialaren arabera, EAEn (2022)*




**Iturria:** Aisialdiko, kulturako eta kiroleko adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024f)

Desberdintasun horiek izan dezaketen azalpenetako bat da emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago erabiltzen dituztela sare sozialak komunikatzeko, eta irudiak eta musika bilatu eta deskargatzeko; horregatik, gehiago erabiltzen dituzte helburu horiekin lotura handiena duten aplikazioak (Valencia-Ortiz, Cabero eta Garay, 2020[36]). Aldiz, gizon gazteek sareak erabiltzen dituzte, bereziki, ikus-entzunezko materiala ikusteko eta onlineko jokoetarako, Youtubeko ohiko edukia (Valencia-Ortiz, Cabero eta Garay, 2020).

Aisialdirako, funtsezkoa da **denbora librea izatea**. EAEko egungo errealitateari buruzko datuak eskuratu ezin izan diren arren, aipatu behar da genero-arrakala dagoela pertsonek egunean dituzten aisialdi-orduetan.

Espainiako biztanleria osoari buruzko ikerketa baten arabera (Closingap, 2019[37]), emakumeek gizonek baino 1 ordu eta 37 minutu gutxiago dituzte egunean aisialdiko jardueretan aritzeko. Emakumeek aipatzen duten arrazoi nagusietako bat da zaintzari eta etxeko lanei arduraldi handiagoa eskaintzea, eta hurrengo atalean ikusiko den bezala, desberdinkeria hori gazteen artean ere badago.

[36]Valencia-Ortiz, R., Cabero, J. eta Garay, U., 2020. Generoaren eragina ikasleek eta irakasleek sare sozialak erabiltzean
[37] Closingap, 2019. Genero-arrakalaren aukera-kostua kontsumoan

## 2.3. DESBERDINKERIAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEAN

Emakume eta gizon gazteen partaidetza sozial eta politikorako modurik ohikoenak, hauteskunde-botoarekin batera, elkarteetako kide izatea, boluntariotza-ekintzak egitea eta gizarte-mobilizazioetara joatea dira.

15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren **asoziazionismo-tasa** % 44,7koa da 2023an. EAEn erregistratu den ehunekorik handienetako bat da hori. Asoziazionismo-tasa handiagoa da gizon gazteen artean (% 47,0) emakume gazteen artean baino (% 42,3). Bi kasuetan, handitu egin da 2021arekin alderatuta (% 46,8 eta % 40,9, hurrenez hurren); bereziki, emakume gazteen artean (Gazteen Euskal Behatokia, 2024g).

Sexua kontuan hartuz gero, aldeak daude elkarte motaren arabera. 2021eko datuek erakusten dute, emakume gazteen zein gizon gazteen artean, kirol- edo mendi-klubetako asoziazionismoa dagoela lehenengo lekuan. Kide diren gizon gazteen ehunekoa handiagoa da (% 26,4) emakumeena baino (% 17,3). Hala ere, bigarren tokian, gizon gazteen artean jolas-elkarteak nabarmentzen dira (gizon gazteen % 11,4); emakumeen artean, berriz, gazte- eta aisialdi-elkarteak (emakume gazteen % 11,3). Aipatu behar da emakumeek gehiago parte hartzen dutela alderdi politikoetan, sindikaletan edo sozialetan inplikatuago dauden elkarteetan (emakumeen % 11,9 eta gizonen % 10,9), hala nola feministetan, ekologistetan eta abarretan.

***20. taula.*** *Elkarteetako kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, elkarte motaren eta sexuaren arabera, EAEn (2021)*

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Kirol- edo mendi-elkarteak edo -klubak** | % 21,9 | % 17,3 | % 26,4 |
| **Jolas-elkarteak (lagunartea, konpartsak, blusak, txokoak, elkarte gastronomikoak, etab.)** | % 10,9 | % 10,4 | % 11,4 |
| **Gazte- eta aisialdi-elkarteak** | % 10,7 | % 11,3 | % 10,1 |
| **Kultura- edo arte-elkarteak edo musika-taldeak** | % 10,4 | % 10,3 | % 10,6 |
| **Bestelako elkarteak (politikoak, sindikalak, profesionalak, ikasleenak, ekologistak, feministak, giza eskubideen aldekoak, etab.)** | % 11,4 | % 11,9 | % 10,9 |
| **Guztira** | % 43,9 | % 40,9 | % 46,8 |

**Iturria:** Euskadiko Gazteak 2020/2021 (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).

EAErako datu espezifikorik ez badago ere, Espainian askoz ere emakume gehiago dira **elkarte feministetako kide** (% 4,3) gizonak baino (% 0,2), eta ohikoagoa da 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen artean (% 2,6) adinez zaharragoak direnen artean baino (Ikerketa Zientifikoen Zentroa —CIS—, 2024).

**Boluntariotzan**, EAEko gazteen parte-hartzeak gora egin du, batez ere gizonen artean. Aurreko urteetan, boluntariotza ohikoagoa zen emakume gazteen artean gizonen artean baino. Hala ere, 2023an berdindu egin da boluntariotza-ekintzetan parte hartzen duten gazteen ehunekoa (% 13,8).

*__16. grafikoa.__ Gazteek boluntariotzan duten parte-hartzearen bilakaera, EAEn (2008-2023)*




**Iturria:** Aisialdiko, kulturako eta kiroleko adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024g)

Gazteen artean interes handiena pizten duen boluntariotza-arloa haurrak edo gazteak dira (boluntarioak diren gazteen % 39,0), eta, ondoren, gizarte-bazterkeriako edo pobreziako egoeran dauden pertsonei laguntzeko jarduerak (% 15,5). Boluntariotzaren aurrean, ez dugu daturik sexuaren arabera gazteek dituzten lehentasunei buruz (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).

**Mobilizazioetan parte hartzea** ohikoagoa da, oro har, emakume gazteen artean (emakume gazteen % 78,3) gizon gazteen artean baino (% 58,4) EAEn. Bereziki, sexuaren araberako alderik handiena feminismoarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako mobilizazioetan ikusten da. 2020an, emakume gazteen % 73,4k parte hartu zuten gai horri buruzko mobilizazioren batean, gizon gazteen % 44,3ren aldera (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).

Politikari dagokionez, EAEko 15-19 urteko biztanleriaren erdiak baino gehiagok (gazteen % 51,4k 2020an) **politikarekiko interesa** erakusten du. Sexuaren arabera, politikan interesa duten gizonen ehunekoa (% 54,0) emakumeena (% 48,7) baino ehuneko 5,3 handiagoa da (2024g). Oraingo honetan, aipatzekoa da 15 eta 29 urte bitarteko gizonen % 13,6 eta emakumeen % 7,8 ez direla alderdi politiko bakar baten aldekoa.

Politikarekiko interesari buruzko datuen kontrara, 15 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen % 60,3k gai publikoetan parte hartu nahi dute, gizon gazteen artean baino ehuneko 10 gehiagok (Gazteen Euskal Behatokia, 2024l).

**Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK)** batzarra EAEko 60 gazte-erakundek osatzen dute, batez ere elkarteek. Ezagutzen diren azken datuen arabera, Batzorde Iraunkorreko lehendakaria emakumea da (EGK, 2022).

## 2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

**Amatasuna eta aitatasuna**

Genero-ikuspegitik begiratuta, garrantzitsua da amatasuna/aitatasuna eta, bereziki, familien egoera eta erantzukidetasuna biltzen dituzten inguruabarrak aztertzea.

**Lehen seme-alaba jaiotzean, amaren batez besteko adinak** gora egin du azken urteetan EAEn, eta % 4,2 igo da 2004-2022ko aldian.

***17. grafikoa.*** *Amaren batez besteko adinaren bilakaera lehen alaba/semea jaiotzean EAEn (2004-2022)*




**Iturria:** Demografiaren eta biztanleriaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024h)

2022an, batez besteko adina 32,4 urtekoa da EAE osoan, baita Gipuzkoan ere. Araban batez besteko adina zertxobait txikiagoa da (31,6 urte), eta Bizkaian, berriz, handiagoa (32,7 urte).

EAEn, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren % 68,6k **seme-alabak izan nahi ditu**. Seme-alabak izan nahi dituzten gizonen ehunekoa emakumeena baino ehuneko 1,1 handiagoa da (% 69,2 eta % 68,1, hurrenez hurren). Adinaren arabera, ia ez dago alderik seme-alabak izateko nahiari dagokionez, eta zertxobait handiagoa da 20-24 eta 25-29 urteko gazteen artean (% 69,0 bi adin taldeetan).

Hala ere, **amatasun eta aitatasun geroratuaren indizearen**[38] arabera, EAEn seme-alabarik ez duten eta seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen pertsonen % 26k uste dute aukera gutxi edo batere ez duela izango nahi duten adinean seme-alabak izateko. Amatasun geroratuaren indizea (% 29,0) aitatasun geroratuarena baino ehuneko 3 handiagoa da.

Aldea oso handia ez bada ere, kontziliazio-zailtasunak eta emakumeen gaitasun ekonomiko okerragoa dira desberdinkeria horren arrazoi posibleetako batzuk.

Halaber, 19 urtetik gorako gazteen artean, amatasun/aitatasun geroratuaren indizea ehuneko 11 handiagoa da 15 eta 19 urte bitarteko biztanleriaren aldean.

[38] Seme-alabarik ez duten eta seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen pertsonen ehunekoa, baina nahi duten adinean seme-alabak izateko aukera gutxi edo batere ez dutela izango uste dutenena.

Lurralde historikoen arabera, indizerik altuena Bizkaikoa da (% 29), eta ondoren Arabakoa (% 26). Indize baxuena, EAEko batez bestekoa baino txikiagoa, Gipuzkoakoa da (% 23).

Familien ardurakidetzari dagokionez, garrantzitsua da **denboraren erabilera eta etxeko lanen eta zainketen banaketa** aztertzea emakume eta gizon gazteen artean.

EAEko biztanleria osoa kontuan hartuta, emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute egunero lan erreproduktiboetan —ordu 1 eta 11 minutu gehiago etxeko lanetan eta 38 minutu gehiago zaintza-lanetan—. Hala ere, gizonek, batez beste, denbora gehiago ematen dute lanean eta prestakuntzan (ordu 1 eta 2 minutu gehiago) edo aisialdi aktiboan eta kiroletan (30 minutu gehiago) egunero (Eustat, 2019).

Era berean, EAEko 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen artean, emakumeek **parte-hartze handiagoa dute** Eustaten Bizi Baldintzei buruzko Inkestak (2019) aztertzen dituen **etxeko eta zaintzako lan guztietan**, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

Datu horiek guztiek erakusten dute oraindik ere desberdinkeriak daudela etxeko lanen eta zainketen banaketan, baita gazteenen artean ere, eta beharrezkoa dela lanean jarraitzea desberdinkeria horiek ezabatzeko eta **ardurakidetzaren arloan** aurrera egiteko.

***18. grafikoa.*** *Etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzten 16 eta 34 urte bitarteko biztanleak, zeregin motaren eta sexuaren arabera, EAEn (2019)*




**Iturria:** Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren datuetan oinarrituta (Gazteen Euskal Behatokia, 2024i)

Egia bada ere zereginen banaketan desberdinkeria murriztuz joan dela, kontuan hartu behar da zein **zeregin motatan** parte hartu ohi duten batzuek eta besteek. Emakumeak gehiago aritzen dira garbiketa-lanetan, arropa garbiketan edo janaria prestatzen —etxe barruan egiten dira—; gizonak, berriz, gehiago inplikatzen dira beste zeregin batzuetan, hala nola kudeaketetan, konponketetan edo haurrekin jolasten (ikusgarritasun handiagoa duten zereginak) (Redmad-Criteria, 2021)[39].

**Genero-berdintasuna**

Biztanleria gaztea jabetzen da egitura sozial eta patriarkalak eragiten dituen genero-desberdinkeriez, eta **adostasun handia erakusten du genero-berdintasunak** gizarte bidezkoagoa lortzeko **duen garrantziari buruz** (Fad Juventud Fundazioa, 2024; CIS, 2023).

EAEn, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 53,2k uste dute oso feminista direla; eta gizonen % 32,1ek uste dute oso feminista direla. Adinaren arabera, 20 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean dago oso feministak direla uste duten pertsona gehien (emakumeen % 58,3k eta gizonen % 40,1ek). Bi sexuen arteko aldea oso nabarmena da gazteen adin-talde guztietan, eta alde handiena 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean dago (ikus beheko taula).

***21. taula.*** *15 eta 29 urte bitarteko gazteen feminismo-maila[40] EAEn (2020)*

| | Emakumeak | Gizonak | Aldea |
|---|---|---|---|
| **15-19** | % 50,7 | % 25,0 | % 25,7 |
| **20-24** | % 58,3 | % 40,1 | % 18,2 |
| **25-29** | % 50,5 | % 31,6 | % 18,9 |
| **Guztira** | % 53,2 | % 32,1 | % 21,1 |

**Iturria:** Euskadiko Gazteak 2020/2021 (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).

Adin-talde guztietan, emakumeak gizonak baino feministagoak dira, baina sexuaren araberako aldeak handiagoak dira gazteen artean. Azalpenen artean, alde batetik, adierazten da emakume gazteak kontzienteagoak eta aldarrikatzaileagoak direla genero-desberdinkeriekiko, eta indarkeria matxistak gehiago ikusarazten dituztela (Gazteen Euskal Behatokia, 2021). Eta, bestetik, gizon gazteak feminismoaren gorakadarekin hazi direla, eta beste belaunaldi batzuetako gizonak baino gehiago identifika daitezkeela orain haiek direla diskriminatuak dioen diskurtsoarekin (Ruiz, 2024[41]).

[39] Redmad-Criteria, 2021. Cómo se reparten las tareas ellos y ellas
[40]*Zer neurritan zara feminista?* galderari "asko" erantzuten duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).
[41] Ruiz, P., 2024. Radiografía del feminismo: ¿por qué las nuevas generaciones están más distantes que nunca?

Gainera, Espainian, gazte gehienek (% 63,3) uste dute **genero-indarkeria oso arazo sozial larria dela.** Ehuneko hori zertxobait handiagoa da emakumeen artean (% 72,8), gizonen artean baino (% 54,0). Hala ere, emakume gazteen % 27,8k eta gizon gazteen % 32,5ek uste dute, gaizki dagoen arren, genero-indarkeria saihetsezina dela, beti existitu delako (Fad Juventud Fundazioa, 2024).

Lehen esan bezala, **emakume gazteak bereziki sentsibilizatuta daude** emakumeen aurkako indarkeriekin. EAEn, emakumeek (% 32,4) gizonek (% 16,1) baino neurri handiagoan uste dute genero-indarkeria gazteen artean zabalduta dagoela (Gazteen Euskal Behatokia, 2021).

EAEko biztanle guztien artean, genero-indarkeriaren aurkako borrokak lehentasuna izan behar duela uste duten emakumeen ehunekoa (% 85) gizonena baino zertxobait handiagoa da (% 82) —Gazteriaren Euskal Bulegoa, 2021—.

Hala ere, sexuaren arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek adostasun handia dute borroka horren lehentasunaren inguruan (% 88), eta adostasun-maila hori handiena da urte gehiago dituzten taldeekin alderatuta (Gazteen Euskal Behatokia, 2021).

Lehen esan bezala, EAEko gazteek **sentsibilitate handia dute emakumeen aurkako indarkeriekiko**. Sexu-indarkeriari dagokionez, sexu-harremanak izatera derrigortzea da indarkeriarik larriena (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b), batez ere gizon gazteen ustez (emakumeen % 94,4 eta gizonen % 96,2), eta, ondoren, etxetik ateratzeko debekua (% 89,9 bi kasuetan). Gainerako tratu txarrei dagokienez, emakumeek adostasun handiagoa dute, nahiz eta adostasuna handia den bai emakume gazteen artean bai gizon gazteen artean.

***22. taula.*** *Tratu txar mota hauek larritzat jotzen dituen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria (2020)*

| | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Sexu-harremanak izatera behartzea** | % 94,4 | % 96,2 | % 95,3 |
| **Etxetik ateratzea galaraztea** | % 89,9 | % 89,9 | % 89,9 |
| **Mehatxatzea** | % 80,1 | % 69,3 | % 74,6 |
| **Sare sozialetan kontrolatzea** | % 75,5 | % 66,2 | % 70,7 |
| **Gauzak erabakitzen ez uztea** | % 70,8 | % 60,8 | % 65,7 |
| **Mespretxatzea** | % 64,2 | % 54,7 | % 59,4 |
| **Irain egitea** | % 45,3 | % 36,0 | % 40,5 |

**Iturria:** Euskadiko Gazteak 2020/2021 (Gazteen Euskal Behatokia, 2022b).

Belaunaldi berriak indarkeria matxisten aurrean gero eta sentsibilizatuago dauden arren, emakume gazteen aurkako sexu-indarkeriaren prebalentzia-datuak handienetakoak dira. Hau da, oraingoz, gizonezko gazteen iritzi publikoko erantzun sozialki desiragarriak eta jokabide intimoak ez datoz guztiz bat.

Horren harira, 2022ko EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren intzidentziari buruzko datuen txostenak (Emakunde, 2023) gazteen arteko harremanetan indarkeriak duen presentziari buruz ohartarazten zuen. 18 eta 30 urte bitarteko gizonak erasotzaileen % 25,3 ziren Ertzaintzak erregistratutako

kasuetan. % 28,5ek 31 eta 40 urte bitartean zituen, erasotzaile adingabeak guztizkoaren % 3,3 ziren, eta 65 urtetik gorakoak % 4,2. Azken bi adin-talde horietako gizonak tartean zeuden kasuak nabarmen hazi ziren 2021arekin alderatuta (% 11,5 eta % 48,9, hurrenez hurren).

Era berean, txostenak honako hau adierazten zuen: «Familia-harremanetik kanpoko sexu-indarkeriaren igoerak (% 15,3 gehiago) adieraz lezake aurrerapenak izan direla indarkeria mota horren adierazpen batzuen desnaturalizazioan Hala ere, prebalentziaren eta intzidentziaren datuen arteko loturak adierazten du familiaren arloan eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren arloan gertatzen diren sexu-indarkeriaren kasu asko oraindik ere azaleratu gabe daudela». Indarkeria-adierazpen horiek eremu digitalekoak, lan-eremukoak eta eremu sexualekoak izan daitezke (inguruko pertsonek, bikotekideak ez diren senideek edo ezezagunek egindakoak).

**Sexu- eta genero-aniztasuna**

**Berdindu** Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei informazioa eta arreta emateko xedea duena.

Berdinduk artatutako pertsonen erdiak baino gehiago emakumeak dira (% 53,6), % 32,1 gizonak eta % 3,0 genero ez-bitarreko pertsonak (gainerako % 11,3a generoa identifikatzen ez duten pertsonak dira). Adinari dagokionez, pertsonen ia % 30ek 19 eta 30 urte bitartean zituen; horixe da, hain zuzen, adin-talde nagusia (Berdindu, 2023).

Gazteen Euskal Behatokiaren (2021) *Euskadiko gazteek indarkeriari buruz duten pertzepzioa* txostenak, adierazten zuenez, EAEko gazteen % 22,2k uste dute indarkeria homofoboa oso zabalduta dagoela, eta % 40,8k uste dute nahiko zabalduta dagoela. Emakume gazteen % 28,7k uste dute oso zabalduta dagoela, eta uste bera dute gizon gazteen % 15,9k.

Ildo beretik, *EAEko aniztasunari buruzko Barometroaren datuek -sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak-* (Immigrazioaren Euskal Behatokia - EHU, 2021) erakusten zutenaren arabera, ikus dezakegu «emakumeak gizonak baino adostasun nabarmenagoz esaten dutela LGTBI pertsonek gizarte-eremuan askatasunez adierazteko mugak izan ohi dituztela, bai eta beren lanbide-ibilbidean aurrera egiteko aukera-berdintasunik ez dutela eta heterosexualek dituzten lan-baldintza berak ez dituztela».

2022an, 96 **gorroto-delitu gertatu dira sexu-orientazio eta -identitateko arrazoiengatik** EAEn (delitu guztien % 21,6), hau da, 2021ean baino % 31,5 gehiago. Hori da kasu gehien biltzen dituen bigarren arrazoia, arrazakeria- edo xenofobia-delituen ondoren (Euskal Herriko Unibertsitatea -UPV/EHU-, 2023). EAEko gorroto-delituen biktimen eta erasotzaileen ezaugarri soziodemografikoak ez dira ezagutzen.

#### Indarkeria matxista

Emakundek (2023) emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako azterketak agerian uzten du adinaren garrantzia. Ikerketa batzuen arabera, emakume gazteek zailtasun handiagoak izan ditzakete berdinen taldean zein harreman afektiboetan pairatzen duten indarkeria-egoeraz jabetzeko. Faktore baldintzatzaileetako bat, herritarren artean, bereziki gazteenen artean hedatuta dagoen « itxurazko» berdintasunaren pertzepzioa da, baita indarkeria matxistaren adierazpen «ez hain bortitzen» normalizazioa ere. Hala ere, zenbait azterlanek ohartarazten dute genero-rolek bere horretan jarraitzen dutela nerabeen eta gazteen artean.

15 eta 29 urte bitarteko **emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra**[42] (% 9,7) 30 urteko edo gehiagoko emakumeen artean erregistratutako tasa halako bi da ia (% 4,0) —Gazteen Euskal Behatokia, 2024j—.

**Emakumeen aurkako indarkeriagatik jarritako salaketen** kopuruak gora egin du azken urteotan EAEn, eta 6.143 salaketa jarri dira 2022an. Salaketa horien ia % 30 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarri zituzten. Adin taldeak kontuan hartuz gero, adinean aurrera egin ahala, salaketen kopuruak gora egiten duela ikusten da. Salaketak 2023an eta 2024an ere igo egin dira.

***23. taula.*** *Emakumeen aurkako indarkeriagatik emakumeek jarritako salaketak, adin-taldeen arabera, EAEn (2018-2022)*

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **15-19** | 411 | 437 | 383 | 409 | 471 |
| **20-24** | 581 | 575 | 508 | 547 | 630 |
| **25-29** | 612 | 647 | 515 | 623 | 708 |
| **30 edo gehiago** | 3.711 | 3.859 | 3.870 | 3.851 | 4.334 |
| **Guztira** | 5.315 | 5.518 | 5.276 | 5.430 | 6.143 |

**Iturria:** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024j)

Adierazi beharra dago indarkeria matxistaren mota batzuk emakumeei eta neskei eragiten dietela, gizartearentzako hain agerikoak ez izan arren[43]. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuez gain, hertsatzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa bereziki kezkagarriak dira Eusko Jaurlaritzarentzat. Oraindik oso datu gutxi jasotzen dira indarkeria horiekin lotutako ikusezintasunari eta estigmatizazioari buruz.

[42]Tasa, 1.000 emakumeko

[43]Ikus 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Emakundek (2023) adierazten duen bezala, kontuan izan behar da emakume gazteek «zailtasunak izan ditzaketela indarkeria-egoera bizi dutela konturatzeko (mendekotasun afektiboa, egoera ukatzen dute, errua beren buruari botatzen diote, etab.). Zailtasun handiak dituzte beren portaeran izaten dituzten indarkeria-adierazpenak hautemateko, bai berdinen taldean zein harreman afektiboetan». Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazi du «itxurazko» berdintasun-egoerak eragin negatiboa duela gazteen artean kontzientzia hartzeko zailtasunetan.

Izan ere, azken urteotan, emakume gazteen aurkako indarkeriak gora egin du indarkeria mota guztietan (ANAR Fundazioa, 2023). Poliziaren eremuan erregistratutako EAEko datu garrantzitsuenetako batzuek (2022koak) honako hau adierazten digute (Emakunde, 2023):

- Erregistratutako familia barruko indarkeriaren lau emakume biktimatik bat 18 urtetik beherako neska edo nerabea da (% 25,1)
- Sexu-indarkeriaren hamar biktimatatik lauk 18 urte baino gutxiago ditu (% 39,8), eta lautik hiruk 30 urte edo gutxiago (% 76,3)
- 18 eta 20 urte bitarteko emakumeen indarkeria matxistaren kasuak % 20,6 igo dira.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima diren 20 urtetik beherako nerabeen kasuak % 38,8 ugaritu ziren

Indarkeriaren tipologiaren arabera, 2022an EAEn erregistratutako 15 eta 29 urte bitarteko **emakume gazteen aurkako familia barruko indarkeriak** eragindako salaketek % 10,3ko igoera izan dute 2021arekin alderatuta. 15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira indarkeria mota horrek gehien ukitutakoak, eta salaketak gora egiten dute urtero.

***19. grafikoa.*** *Familia barruko emakumeen aurkako indarkeriaren salaketak, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarritakoak, adinaren arabera, EAEn (2018-2022)*




**Iturria:** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024j)

2022an **genero-indarkeriagatiko** 4.507 **salaketa** jarri ziren EAEn (hau da, bikotekide edo bikotekide ohi batek eragindako indarkeria). Alegia, 2021ean baino % 16,4 gehiago. Salaketa horien ia % 30 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarri zituzten. Aurreko urtearekin alderatuta, % 15,9 gehiago da. Adinaren arabera, 25 eta 29 urte bitartekoen artean ikusten da genero-indarkeriagatiko salaketa gehien (Gazteen Euskal Behatokia, 2024j).

***20. grafikoa.** 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarritako genero-indarkeriako salaketak, adinaren arabera, EAEn (2018-2022)*




**Iturria:** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024j)

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Estatuko makroinkestaren arabera (DGVG, 2019), 18 eta 24 urte bitarteko emakume gazteen artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako kontrol psikologikoko indarkeriaren prebalentzia-tasa (% 38,6) batezbestekoa (% 27,7) baino askoz handiagoa da.

**Sexu-indarkeria** oso kezkagarria da, **emakume gazteek zaurgarritasun handiagoa baitute** indarkeria matxista mota horren aurrean.

2022an, 520 **salaketa** jarri ziren EAEn **sexu-askatasunaren aurkako delituengatik**, eta erdiak baino gehiago (guztizkoaren % 51,7) 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarri zituzten. Horien artean, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira indarkeria mota horrengatik salaketa gehien jartzen dituztenak.

***24. taula.** 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek jarritako sexu-askatasunaren aurkako delituen salaketak, adinaren arabera, EAEn (2018-2022)*

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **15-19 urte** | 100 | 115 | 99 | 143 | 138 |
| **20-24 urte** | 52 | 59 | 36 | 70 | 86 |
| **25-29 urte** | 35 | 37 | 30 | 29 | 45 |
| **30 urte edo gehiago** | 201 | 213 | 182 | 209 | 251 |

**Iturria:** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (Gazteen Euskal Behatokia, 2024j)

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestak (DGVG, 2019) emaitzetan adierazten zuenez, emakume gazteak dira batezbestekoaren gainetik dauden sexu-indarkeriaren prebalentzia-tasak dituztenak: 18 eta 24 urte bitartekoen % 11,5ek sexu-indarkeria jasan du bikotearen barruan (% 6,5ek, batez beste); % 11,1ek bikotetik kanpoko sexu-indarkeria (% 8,9k, batez beste); eta % 62,5ek sexu-jazarpena (% 40,4k, batez beste).

Ildo horretan, garrantzitsua da **pornografiaz** hitz egitea, baita gazteen arteko sexu-indarkeriarekin duen loturaz ere.

Nerabezaroan **pornografiaren kontsumoak** eragin kezkagarria du berdinen arteko harremanetan adingabeengan, egoera irreal, bortitz eta desorekatuen bidez eraikitzen baitute sexu-desira genero-ikuspegitik (Save the Children, 2020).

Pornografia kontsumitzen 12 urterekin hasten dira batez beste. Nerabezaroan maiz kontsumitzen dute, gizon nerabeek emakume nerabeek halako bi (% 81,6 eta % 40,4, hurrenez hurren). Nerabe askorentzat pornografia da sexu-praktikei buruzko informazio-iturri bakarra (Save the Children, 2020).

Nerabe askok, gehienak gizonezkoak, uste dute pornografiak ideiak ematen dizkiela beren esperientzietarako, edo, are gehiago, ikusten dutena praktikan jartzea gustatuko litzaiekeela diote. Gainera, kezkagarria da gizon nerabe batzuek onartzea (galdera horri erantzun zioten gizon nerabeen % 12,2k eta emakume nerabeen % 6,3k[44]) **bikotekideen baimen esplizitUrik gabe eta oniritzirik gabe** egin dituztela praktika horiek (Save the Children, 2020).

Horren harira, EAEko erakundeek, Emakunderen kanpaina baten bidez, agerian uzten dute gazteen sexu-hezkuntza pornografiaren esku uzteak dakartzan arriskuak, eta adierazten dute «pornoa emakumeen aurkako indarkeriaren eskola bat» dela[45].

**Indarkeria digitala** indarkeria matxistaren beste modu bat da, eta horren aurrean emakume gazteek zaurgarritasun handiagoa izan dezakete. Indarkeriaren adierazpen honek barne hartzen ditu indarkeria informazioaren teknologien (IKT) bidez erabiltzen edo bultzatzen duten modu guztiak —Emakunde, 2023—.

Indarkeria digitalaren adierazpen ohikoenetako bat jazarpen errepikatua edo *stalkinga* da. Espainian, emakumeen % 15,2k behin eta berriz pairatu dute jazarpena, eta prebalentzia handiagoa da 18 eta 24 urte bitarteko emakumeen artean (% 26,2) eta 16 eta 17 urte bitartekoen artean (% 24,6) —Emakunde, 2023—.

EAEn, emakumeen % 17,4k behin eta berriz pairatu dute jazarpena (Emakunde, 2023). Adina edozein dela ere, emakumeek jazarpen handiagoa pairatzen dute sare sozialetan gizonek baino. Alde hori bereziki nabarmena da 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen (% 39,4k sentitu du jazarpena sare sozialetan) eta gizonen artean (% 19,9), ehuneko 19,5eko aldea baitago (Gazteen Euskal Behatokia, 2023).

**Indarkeria matxistek emakume gazteengan duten eragina** da, indarkeria-ekintzez eta horiek biktimengan dituzten ondorio fisiko eta psikologikoez gain, horri buruz Gazteen Euskal Behatokiak (2023) jasotzen duen adierazle garrantzitsuetako bat.

15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 72,1ek diote "beldurra diotela gauez kalean ibiltzeari", eta ehuneko hori hiru aldiz handiagoa da adin bereko gizonen artean baino (% 22,7), 2022ko datuen arabera.

Datu horiek agerian uzten dute "beldurraren arrakala" deritzona (Emakunde, 2016; Reid eta Konrad, 2010). Kontzeptu horrek emakumeei eragiten dien beste genero-desberdinkeria mota bat aipatzen du: indarkeriaren biktima izateko beldurra, zeina askoz handiagoa baita gizonengan baino.

[44]Datu horiek kontu handiz tratatu behar dira, ez baitira emaitza adierazgarriak. Informazio gehiago hemen: Save the Children, 2020 (esteka).
[45]Emakunderen kanpainari buruzko informazio gehiago esteka honetan.

Gizon gazteek baino ingurune oldarkorragotzat eta ez-seguruagotzat hartzen dute espazio publikoa emakume gazteek. Emakumeak abusuaren, erasoen eta bortxaketaren beldur dira, eta horrek **eragina du hirietan bizitzeko moduan, eta mugatu egiten du emakume gazteen espazio publikoen erabileran** (Emakunde, 2016).

Hau da, emakumeen aurkako indarkeriak, edozein adierazpenetan, ondorio larriak ditu emakume gazteen bizitzetan. Emakume gazteen osasun fisikoan eta ongizate psikologikoan, ugalketa-osasunean eta sexu- eta ugalketa-eskubideen erabileran du eragina, baita gizartean eta ekonomian parte hartzeko aukeretan ere. Indarkeriak emakumeak pobretzen ditu eta garapen-aukeretarako sarbidea mugatzen die.

## 2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO AGINDUAK

| BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK | ARTIKULUAK/ARAUAK |
|---|---|
| Kultura-jarduerak.<br>4. Bereziki, EAEko administrazio publikoek jarduera hauek bultzatu behar dituzte funts publikoekin finantzatutako museo eta arte-zentroetan:<br><br>a) **Genero-ikuspegia txerta dadila haietako hezkuntza-programetan, bisita-programetan eta bestelakoetan**, bereziki, **haur eta gazteentzako** programetan. | **28.4.a) artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |
| Komunikabideak, publizitatea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.<br>3. Komunikabideek, programazioak egiteko orduan, **genero-ikuspegia eta intersekzionala edukietan sartzen dela bermatuko dute;** horrez gain, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen partaidetza aktiboa, bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen funtzioei buruzko estereotipo sexistetatik aparte; bereziki zaindu behar dituzte **haur zein gazteentzako** edukiak, eta 3.1 artikuluaren azken atalean aipatzen diren diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak dituzten emakumeekin lotutako aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazi behar dituzte. | **29. artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |
| Hezkidetza.<br>Hezkuntza-politika publikoek **hezkidetza** sustatuko dute, eta, lege horren ondorioetarako, pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua da, generoaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, diskriminazio-mota oro baztertzen duena eta, generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzen duena. Horretarako, **emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatuko da hezkuntza-maila eta -etapa guztietan**, barne hartuta haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa eta helduentzako irakaskuntza; eta dimentsio guztietan: curriculumean, antolamenduan eta beste batzuetan. | **31. artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |
| Curriculuma.<br>Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du **hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, adingabeekiko sexu-abusuak barne**, eta eguneroko bizitzarako irakasgai edo eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldi horietan, gai hauekin lotutako alderdi eta edukiak sartuko dira: etxeko eremua eta pertsonen zaintza, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutza eta harreman afektibo-sexual osasungarri eta positiboak sustatzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen gorputza erakartzeko elementu edo aberastasun-iturri gisa erabiltzea zalantzan jartzea, jarrera matxisten identifikazioa eta prebentzioa, agerikoenak ez direnak barne, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta, sexuen berdintasunaren eta dibertsitatearen errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak ikastea. | **32.2 artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |

| | |
|---|---|
| Osasuna<br>3. Euskal administrazio publikoek **sexu- eta ugalketa-eskubideak** baliatzearen ondoriozko beharrei erantzun behar diete, prebentzio- eta asistentzia-neurrien bidez. Neurri horiek honako hauek lortzera bideratuko dira, besteak beste:<br>g) **Emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzea eta detektatzea**, eta hura jasan duten emakumeei jakinaraztea, baita emakume adingabeei ere, badutela aukera, hala badagokio, egin zaien mutilazioaren eraginak leheneratzeko edo leuntzeko ebakuntza kirurgikoko osasun-mekanismoen bidez. | **48. artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |
| Sentsibilizatzea eta prebenitzea<br>2. Ezertan eragotzi gabe lege honetan aurreikusitako gainerako prebentzio-neurriak, EAEko administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, koordinaturik eta berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta ezabatzeko helburuarekin, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen eta gizonen jokamolde soziokulturaletan aldaketak sustatzeko, eta, hartara, emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako **aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta jardunak desagerrarazteko**.<br><br>Era berean, **genero-desberdinkeriari aurre egiteko** programak eta jarduerak egin behar dituzte, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak barne, bereziki emakumeei zuzenduta, haien autonomia, kontzientziazio feminista eta ahalduntzea indartzeko, eta gizonei, berriz, maskulinitate matxista eta bortitzak deseraikitzeko, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako eragile aktibo bihur daitezen.<br><br>Bereziki, haurtzaro eta gaztaroaren sustapen-programak eta -jarduerak sustatuko dira, **neska txikiei eta neskei** ahotsa eman eta haien **ahalduntzea bultzatzen** dutenak, eta mutikoak eta mutilak berdintasunean inplika daitezen bultzatzen dutenak. Era berean, adineko emakumeei eta lege honen 3.1 artikuluaren azken paragrafoan aipatutako diskriminazio anizkoitza eragiten duten faktoreak dituzten emakumeei zuzendutako programak sustatuko dira.<br><br>4. Era berean, EAEko administrazio publikoek bermatu behar dute badaudela programak, bai adingabeentzat, bai helduentzat, **emakumeen kontrako indarkeria baliatzen dutenei** pertsonen arteko harremanetan indarkeriarik gabe nola jokatu erakutsiko dietenak, berriz ere indarkeriara ez jotzeko eta indarkeriazko jokabide-eskemak aldatzeko; eta bermatu behar dute badaudela berreziketa-programak delitu horien egileek ez dezaten berriz halakorik egin. | **56. artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |
| Prestakuntza.<br>4. EAEko administrazio publikoek bermatu behar dute **haurren eta gazteen esparruan lan egiten duten pertsonek prestakuntza egokia dutela** adin horietako pertsonei eragiten dieten emakumeen aurkako indarkeria matxistaren forma espezifikoak detektatzeko eta artatzeko, bereziki, familia-eremuko edo gertuko inguruneko sexu-indarkeria, bai eta kirolean, aisialdian, ikastetxeetan eta zentro instituzionaletan eta arlo digitalean gertatzen diren indarkeriak ere. | **57. artikulua**<br>1/2023 Legegintzako Dekretua |

| | |
|---|---|
| Emakume gazteak.<br>Esparru guztietan **emakume gazteen autonomia sustatzea**, batez ere enplegu eta etxebizitza duinarekin | **EA 6.8 2. ARDATZA 14. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Kirola.<br>**Berdintasuna sustatzea jarduera fisikoan eta kirolean** (genero-estereotipoak ez dituzten kirol-modalitateak eta -diziplinak hautatzea, emakume adingabe, nerabe eta helduengan praktika jarraitua egitea eta emakumeek eta gizonek kirola egitean sektore maskulinizatuetan eta feminizatuetan, hurrenez hurren, aurki ditzaketen diskriminazioak ezabatzea). | **GA 8.7 3. ARDATZA 18. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| STEAM bokazioa.<br>**Emakume adingabe, nerabe eta helduen motibazioa eta interesa sustatzea STEAM arloetan** «Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika», ikasketa eta lanbide horien inguruan dauden genero-estereotipoak deseginez | **GA 9.6 3. ARDATZA 20. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Ikasketak aukeratzeko dibertsifikazioa.<br>Neska-mutilek **ikasketak aukeratzeko orduan genero-arrakalak eta -joerak murriztea**. | **GA 10.3 3. ARDATZA 22. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Berdintasunerako ekintza.<br>Gizonen konpromisoa, inplikazioa eta intzidentzia eraginkorra sustatzea **berdintasun erreala eraikitzeko eta indarkeria matxista ezabatzeko**, bereziki gazteena eta lidergo-postuetan daudenena, aldaketaren eragile bihur daitezen, eredu izan daitezen eta sinergiak sor ditzaten, parte hartzen duten gune guztietatik. | **GA 10.7 3. ARDATZA 23. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Ustezko berdintasunaren mitoa desegiten.<br>**Belaunaldi gazteenak sentsibilizatzea**, berdintasunaren arloan erdietsitako lorpenak balora ditzaten, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzen ikas dezaten eta horiek ezabatzeko mobiliza daitezen. | **GA 10.8 3. ARDATZA 24. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Indarkeriazko portaerak.<br>Emakumeen aurkako indarkeria matxista erabili duten edo jokabide sexista problematikoak dituzten adingabeek, nerabeek eta helduek **indarkeriazko beren portaerari berriro ekitea** prebenitzea. | **GA 11.6 4. ARDATZA 26. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Detekzio-mekanismoak.<br>**Biktimek edo biktima izan daitezkeenek** (nahitaezko ezkontzak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen eta nesken sexu-salerosketa edo -esplotazioa, eta sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena) **bizi ditzaketen arrisku-egoerak detektatzeko eta horiei aurre egiteko** tresnak prestatzea. | **EK 12.2 4. ARDATZA 28. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Arreta-eredua.<br>Bermatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpenen biktima diren emakume adingabe, nerabe eta heldu guztiek **lehentasunezko arreta, pertsonalizatua, integrala, espezializatua, doakoa, eskuragarria, kalitatezkoa eta haien erreferentziazko hizkuntzan jasotzen dutela** sistema publikoko zerbitzu eta prestazio guztietatik, haien egoera pertsonala, soziala edo administratiboa edozein direla ere. | **EK 12.3 4. ARDATZA 29. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |
| Indarkeriaren zuzeneko beste biktima batzuentzako arreta.<br>**Laguntza eta arreta sozial eta psikologiko espezializatua** indartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen den ingurunean dauden haur, nerabe, senide eta beste pertsona batzuentzat. | **EK 12.7 4. ARDATZA 29. ildoa**<br>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia |

| | |
|---|---|
| Bokazio-orientaziorako jarduera indartzea eta hobetzea, euskal gazteek karrera profesionala aukera dezaten **informazio gehiago izanda eta genero-estereotiporik gabe** | **1.3 gidalerroa 1. ARDATZA** 2022-2025eko Ekintza Plan Eragilea - Soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategia |
